



LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

GRADU AMAIERAKO LANA

Euskal itzultzaileen estrategiak genero markak itzultzean

Itzulpengintza eta Interpretazioko gradua

2018-2019 ikasturtea

Egilea: Leire Vega Barandiaran

Tutorea: Isabel Etxeberria Ramirez

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak saila

Laburpena:

Generoa gai ezin delikatua dugu egun; emakume edo gizon, maskulino edo femenino binomiotik haratago doan kontua da. Inoiz baino kontu handiagoarekin lantzen dugun gaia da, eta eztabaida honek pisu handia hartu du jendaratean. Genero gramatikalaren auziak buruhauste handiak sor diezazkioke itzultzaileari itzuli beharreko hizkuntza konbinaketaren arabera, hizkuntza batzuetan, euskara kasu, genero gramatikalak pisu txikia baitauka; beste hizkuntza batzuetan, aldiz, genero gramatikalak pisu handiagoa du (gaztelaniak, adibidez), eta hizkuntza konbinaketa horietan itzultzaileak hartu behar dituen erabakiak ezin garrantzitsuagoak dira

Hori guztia dela eta, lan honen helburua, euskal itzultzaileek genero markak itzultzean erabiltzen dituzten estrategiak identifikatzea da. Horretarako, hasiera batean itzulpen ikasketen eta genero ikasketen arteko harremanaren inguruan hainbat azalpen emango ditugu bien sorreratik hasita. Harreman horren ondorio zuzen gisa, Kanadan sortutako itzulpen feministaren inguruan ere.

Jarraian, generoak itzulpengintzan duen garrantziaren inguruan hitz egingo dugu; gai gatazkatsu horri aurre egiteko asmoarekin sortutako itzulpen feministak erabiltzen zituen itzulpen-estrategiak izendatu eta azalduko ditugu hainbat adibide baliatuta.

Horrenbestez, genero gramatikalaren gatazka gurera ekarriz, zenbait euskal itzultzailek gai honen inguruan izandako gogoetak aurkeztuko ditugu.

Ondoren, nire ikerketa aurrera eraman ahal izateko erabili dugun metodologiaren inguruan ere jardungo dugu. Aztertu ditugun ipuinen aukeraketa egiteko aurrera eraman dugun hausnarketa esplikatuko dugu, eta testuen azterketa xehe-xehe azalduko dugu: ipuin liburu bakoitzari sarreratxo bat egingo diogu, horren itzultzaile zein idazleen inguruan datu bibliografiko batzuk emanda. Jarraian, liburu bakoitzean azterketa egiteko hautatu dugun ipuinaren argumentua azalduko dugu. Azalpen horien ostean, genero markak itzultzeko garaian itzultzaileak erabili dituen estrategia ezberdinak identifikatuko ditugu hainbat adibiderek, baita estrategia bakoitzaren erabilpenaren portzentajeak aipatu ere. Azkenik, azterketarekin amaitzeko, estrategia bakoitzaren erabilpenaren zergatia azalduko dugu.

Lanarekin amaitzeko, ikerketa hau egin ondoren ateratako ondorioak plazaratuko ditugu, eta atal teorikoa egin ahal izateko erabili dugun bibliografia zerrendatuko dugu.

Bibliografia horren ostean hainbat eranskin txertatu ditugu; testu bakoitzaren azterketa osoaren taulak daude bertan; lanean zehar, taula horietatik atera ditugun lagin batzuk besterik ez baititugu jarri.

AURKIBIDEA

1.	Sarrera	5
2.	Marko teorikoa	6
2.1	Itzulpen Ikasketak.....	6
2.2	Itzulpen Ikasketak eta Genero Ikasketak (itzulpen feminista)	6
2.3.	Generoa itzulpenetan	7
2.4.	Itzulpen feministaren estrategiak.....	8
2.5.	Generoa eta itzulpenak euskarara	10
3.	Metodologia.....	12
4.	Testuen azterketa	14
4.1.	Raymond Carver: Zergatik ez duzu dantza egiten?.....	14
4.2.	Katherine Mansfield: Etxekoandrearen neskamea	18
4.3.	Dorothy Parker: Telefono-dei bat	23
4.4.	Alice Munro: Egurra	26
5.	Ondorioak.....	32
6.	Bibliografia.....	34
6.1.	Aztertutako liburuak.....	34
6.2.	Erabilitako baliabideak.....	34
7.	Eranskinak.....	36
7.1.	Eranskina I: Zergatik ez duzu dantza egiten (azterketa)	36
7.2.	Eranskina II : Etxekoandrearen neskamea (azterketa)	40
7.3.	Eranskina III: Telefono-dei bat (azterketa).....	45
7.4.	Eranskina IV: Egurra (azterketa)	52

1. Sarrera

Azken urteotan, generoaren auziak indar handia hartu du jendartean, eta dagoeneko zaharkituta dago generoak emakume eta gizonak soziokulturalki bereizten gaituela defendatzen duen teoria.

Bi genero horien parte sentitzen ez den jendea geroz eta ugariagoa da, genero ez binario edo *queer* bezala identifikatzen dena.

Feminismoak ere izugarritzko aldaketa izan du azken hamarkadan, eta emakumeen eskubideen alde borrokatzeaz gain genero honen ikusgarritasunaren aldeko borroka ere gorakada handia izan du. Horren ondorio dira gaur egun espainolez, hizkera inklusibo gisa, eremu informaletan erabiltzen diren femenino plural generikoaren erabilera («estamos cansadas» emakume eta gizonez osaturiko talde bati erreferentzia egiteko erabiltzea), baita «E» edo «X» hizkien erabilera ere («estamos cansades» edo «estamos cansadxs»).

Jendartea gutxinaka aldaketa hauek normalizatzen saiatzen ari den arren, normalizaziora bidean dagoen arazo nagusitako bat hizkuntza dela sinesten dugu. Hizkuntza komunikazio tresna bizia eta dinamikoa den arren, errealitatean, hizkuntza batean ia oinarritzkoa den kontzeptu baten (genero gramatikalaren) aldaketa egiteak denbora asko dakar hizkuntza horiek arautzen dituzten erakunde horien onarpena lortu arte.

Aipatutako hori guztia dela eta, testu bat idazteko edo itzultzeko garaian politikoki zuzen idaztea izugarri zaila dela uste dugu, eta are zailagoa dela inor baztertzen ez duen hizkera bat erabiltzea.

Horri guztiari hizkuntza bakoitzaren gramatika ezberdina dela gehitzen badiogu, itzultzeko orduan ezin/are? zailagoa bihurtzen da kontua. Izan ere, lanean zehar azalduko dugun bezala, genero gramatikalak ez baitu presentzia bera hizkuntza guztietan.

Euskararen kasuan, genero gramatikalaren presentzia txikiak hainbat zailtasun dakartza itzultzeko orduan, eta beraz, gai honen inguruan sakontzea ezin interesgarriagoa iruditu zaigu.

Horrenbestez, zenbait euskal itzultzailek genero gramatikala itzultzeko garaian erabiltzen dituzten estrategiak identifikatzea, eta horiek erabili izanaren arrazoiak aztertzea etorkizun batean oso erabilgarria izango zaidala sinesten dugu.

Gainera, euskal itzulpengintzan itzultzaile batzuek genero gramatikalaren inguruan hausnartu duten arren, gai honen inguruko lanak urriak dira, eta beraz, lan honen bitartez ekarpen bat egin dezakegula uste dugu; gutxienez aztertu ditudan itzultzaileei baliagarria izango zaielakoan nago.

2. Marko teorikoa

2.1 Itzulpen Ikasketak

Itzulpen Ikasketak oso diziplina berria dira. XIX. mendera arte ez zen itzulpenaren inguruko teorizazio egituraturik egin Mendebaldeko kulturari; ordura arte ikuspegi enpiristatik egindako ohar eta iruzkin bildumak besterik ez zeuden. Itzultzaileek beren itzultzaile esperientzian oinarritutako hainbat arau, gomendio edo aholku biltzen zituzten besteek erabili zituzten, baina ez zen itzulpenaren fenomenoaz hausnarketa sakonik egin.

XX. mendearen erdialdean Catford, Newmark eta beste zenbait hizkuntzalarik itzulpenaren arreta jarri zuten eta itzulpenaren teoria garatzen hasi ziren. Gero, 1970eko hamarkadan, Itamar Even-Zohar teorialari eta itzultzaile israeldarrak Polisistemen Teoria osatu zuen eta harrez gero itzulpengintza interesgune bihurtu zen.

Itzulpengintzaren historiografian 1980ko hamarkadan norabide aldaketa bat egon zen kulturari dagokionean, itzulpena sistema isolatu bezala ulertu ordez beste hainbat azpisistema kulturalen multzo baten barruan aztertzen hasi baitziren. Sistema horiek, mundu globalizatuan nagusitzen ziren kulturen menpe zeuden. Garai hartan, idazle, itzultzaile eta hartzaileen artean zeuden botere harremanek garrantzia handia hartu zuten itzulpenaren inguruko teorizazioan, eta itzulpenaren eta ideologiaren arteko lotura bezalako kontzeptuen inguruan eztabaidatu zen.

2.2 Itzulpen Ikasketak eta Genero Ikasketak (itzulpen feminista)

Hamarkada horretan bertan, Kanadan, itzulpengintza korrante berri bat sortu zen itzulpengintzaren eta itzulpen ikasketen ikuspuntu feminista lantzen zuena; itzulpen feminista. Korrante berri hori itzulpengintza lantzeko modu guztiz ezberdin bat zen: jatorrizko testuarekiko leialtasuna alde batera utzi eta itzulpena sorkuntza lan bat bezala ulertzen zen; horren adibide da emakumezko itzultzaileen lana ikusarazteko asmoz

egindako testuen «manipulazio» edo aldaketa onartzen zela. Itzulpena erreminta politiko gisa erabili zuten, patriarkatuak gizartean eta hizkuntzan zuen zama deuseztatzeko.

Mugimendu honen hasieratik itzultzaile feminista guztiek historian zehar emakumezko idazleek idatziriko obra asko «galdu» izana salatu zuten, eta beraz, kanon literario garaikidea eraldatzeko helburuarekin, isilarazi zituzten idazle horien lanak errekupeartzeari ekin zioten.

Itzulpen feministaren beste helburuetako bat itzulpena erabiliaz gizartean emakumeek zuten errepresentazioa aldatzea zen. Horretarako, hizkera sexistak zalantzan jarri eta alternatibak sortu zituzten gizarte ez patriarkal bat garatzen laguntzeko asmoarekin. Hizkuntzetan erabiltzen zen generoa zalantzan jarri zen, eta itzulpenak egiteko garaian kategoria linguistiko horrek zuen garrantzia azpimarratu zuten.

Von Flotow itzultzaile kanadarrak Itzulpen Ikasketetan neurri ezberdinean eragin zuten bi paradigma ezberdintzen ditu: bata aktibismo feministaren sorrera eta honek itzulpenean izan zuen eragina, eta bestea «genero» terminoaren desestabilizazioa.

Itzulpenak genero ikasketen barnean horrenbesteko garrantzia hartu zuenez, Itzulpen Ikasketen ikergai nagusia bihurtu zen itzultzean zer errepresentazio zuen genero linguistikoak, bai kulturalki eta baita ideologikoki ere.

2.3. Generoa itzulpenetan

Ikerketa hauen hasieran bertan genero linguistikoaren gatazka azaleratu zen. Izan ere, itzulpenetan, jatorrizko hizkuntzako eta xede hizkuntzako genero linguistikoaren erabileraren baitan zailtzen baita prozesua. Jatorrizko hizkuntzak eta baita xede hizkuntzak ere genero linguistikoa markatzen badu ez da inongo arazorik sortuko; baina, jatorrizko hizkuntzak genero markarik erabiltzen ez badu, testua xede hizkuntzara itzultzean itzultzaileak subjektu edo objektu horien genero linguistikoa hautatzeko beharra du, eta hor sortzen da arazoa.

Kasu batzuetan, testuak berak subjektu/objektu horien genero linguistikoa aditzera ematen du; euskararen kasuan, nobela batean «Ane egarri zen, eta horregatik baso bat ur eskatu zion zerbitzariari» esaldia gaztelaniara itzuli behar badugu, «zerbitzari» delako horren generoa zein den erabaki beharko genuke. Baliteke istorioaren testuinguruagatik euskaraz pertsonaia horren generoa zein den jakitea; baina, subjektu/objektu horren

generoa zein den ez badakigu, istorioan aipatzen ez delako; kasu horietan itzultzaileak berak bi generoetako baten hautua egin behar du. Egoera horretan itzultzaileen hautua hautu ideologikotzat hartua da.

Genero gramatikala izenordainetan eta determinatzaileetan markatzen duten hizkuntzen artean ere bada nagusitzen den fenomeno bat: generiko maskulinoa. Hizkuntza horietan generikoak, emakume eta gizonez osatutako multzo bat izan arren, maskulinoz izendatzen dira.

Genero Ikasketen eta Itzulpen Ikasketen ikerlanek aurrera egin ahala, itzulpenetan genero femeninoaren ikusezintasunerako hautua nagusitzen zela berretsi zuten, eta baita hautu hori gizartean nagusi den ideologia patriarkalaren ondorio zuzena zela ere. Itzultzaileak bi generoen artean hauturik egin nahi ez zuenean, ideologikoki posizio bat ez hartzeko asmoarekin, «Male-As-Norm Principle» edo «MAN Principle» izenez ezagutua den teknika erabiltzen zen. Teknika honek egiten duen hautua ondorengoa da: subjektuaren sexua ezagutzen ez dugunean maskulinoa erabiltzen da. Ideologia honen adibide da euskarazko «ume» hitza gaztelaniaz «niño» itzultzea.

Testuinguru honetan, hizkuntzaren «arrasto» sexista horiek ezabatzeko asmoarekin «itzulpen feminista» edo «berridazte femeninoaren» ideia sortu zen. Ideia honen helburuak bi ziren: batetik, hizkera patriarkala hankaz gora jartzea, eta bestetik, ideia feministak aldarrikatzea.

2.4. Itzulpen feministaren estrategiak

Aurretik aipatu bezala, itzultzaile feministak beharra sentituz gero testua nahi beste «manipulatu» dezake, eta baita bere ideologia bertan adierazi ere horrekin jatorrizko testuak berak duen kutsu patriarkala ezabatzen badu. Horretarako hainbat estrategia erabili izan dira. Hauek azaltzeko Castro Vázquezek (2009) argitaratutako *Género y traducción: elementos discursivos para una reescritura en feminista* artikuluan oinarrituko naiz.

Lehenengo estrategia gehien zabaldu dena da: **orokortzea edo neutralizazioa**. Estrategia hau termino sexista beste termino neutro edo eta bi generoak biltzen dituen beste termino batez ordezkatzean datza (*estudiante alumnoren orde, profesorado profesoren orde*). Teknika honen bidez ez da generoa modu esplizituan adierazten, baina normalean «MAN

Principle» teknika erabiltzen da, eta beraz, pluralak forma maskulinoan adierazten dira plural neutro «falsu» bat erabilia. «Taxistas» hitza izatez neutroa den arren, denoi gizonezko baten irudia baitatorkigu; eta beraz, testu batean taxista hori emakumezkoa balitz gehienok hori zehaztera joko bai genuke.

Feminizazioa edo espezifikazioaren estrategia genero gramatikalaren markak bistaratzean datza emakumeak ere hizkuntzan ikusarazi daitezen; hau da, aipatu berri denaren generoa aipatzen da (maskulinoa gizonezkoa bada, eta femeninoa emakumezkoa bada; gizon eta emakume bat badira biak aipatzen dira). Castro Vázquezek aipatzen dituen errekurtsioetako batzuk dira parentesiak, barra etzanak, gidoiak, letra larriak, a bilduak eta bikoizketak. Honez gain, bada azken aldian gailentzen ari den teknika bat: *x*ren erabilera. Genero marka aditzera ematen duten hizkien ordez *x* hizkia erabiltzen da (*chicxs, lxs jóvenes*).

Aipatutako bi estrategia hauek dira ezagunenak itzulpen feminista zein beste edozein itzulpen teknikari dagokionean; baina badira Castro Vázquezek aipatzen dituen beste hiru estrategia ere. Teknika hauek itzulpen feministan oso praktikoak dira, eta ikuspuntu erradikalago batean kokatzen dira:

- **Suplementazio edo konpentsazioa.** Honen helburua kultura eta hizkuntza ezberdinen artean dauden ezberdintasunak konpentsatzea da, jatorrizko testuak dituen esanahi eta konnotazioak mantenduta. Lotbinière-Hardwood itzultzaile feministak, Barbara Godard-en *Amantes* teknika hau erabilia itzuli zuen. «Amoranteak» hitza *Amants* izango litzateke; beraz, bi emakumeren amodioa lantzen duenez *AmantEs* erabili zuen E hizkia erabiltzen delako frantsesez femeninoa sortzeko. Lotbinière-Hardwoodek, beraz, *LovHers* erabili zuen, ingeleseko bertsioan.
- **Metatestualitatea.** Testuan zehar itzultzaileak izan duen esku-hartzea justifikatzea testutik kanpoko bestelako testuen bidez: hitzaurrea, oin-oharrak eta abar. Estrategia hau erabilia itzultzaileak genero gatazka ikusarazten du. Teknika honen adibide adierazgarriena, Lise Gauvin-en *Lettres d'une autre* (1987) liburuaren ingelesezko bertsioa da. Lotbinière-Hardwoodek *Letters from An Other* bezala itzuli zuen, eta hitzaurrean «other» hitzean «her»ek duen funtzioa adierazten du:

Dear reader,

Just a few words to let you know that this translation is a rewriting in the feminine of what I originally read in French. I don't mean content. Lise Gauvin is a feminist, and so am I. But I'm not her. She wrote in the generic masculine. My translation practice is a political activity aimed at making language speak for women. So my signature on a translation means this translation has used every possible feminist translation strategy to make the feminine visible in language. (Lotbinière-Harwood, in Gauvin 1989, via Castro 2009)

- **Bahitzea.** Itzultzaileak hizkera patriarkala nagusi duen testu bat bere egitean datza. Testua berridatzi egiten du, neologismoak erabilita, aldaketak eginda, maskulino generikoa femenino generiko batekin ordezkaturaz, elementu sexistak ezabatuta... Estrategia honen adibidea aurreko adibide bera da; izan ere, Lotbinière-Harwooden *Lettres d'une autre*ren itzulpenean bahiketaren teknika nagusitzen baita; beste adibide ezagunenetako bat, Suzanne Jill Levinek itzulitzako Cabrera Infanteren hainbat testu dira (Castro 2009).
- **Egilekidetza.** Itzultzaile feministak testuaren idazlearekin elkarlanean itzultzen du. Estrategia hau Nicole Brossard-en *Elle serait la première phrase de mon prochain roman* (1998) obraren itzulpenean jarri zen praktikan lehenengoz; Lotbinière-Harwoodek egilearekin elkarlanean itzuli zuen, eta *She would be the first sentence of my next novel* (1998) izan zen emaitza.

2.5. Generoa eta itzulpenak euskarara

Aurretik aipatu bezala, zenbait hizkuntzatan genero gramatikalak presentzia gutxiago du, eta euskara horietako bat da. Euskaraz badira hainbat kasu non generoa markatzen den: lexikoan, «maisu/maistra»; hikako aditzetan, N hizkia femeninoan «dun» eta K hizkia maskulinoan «duk»... baina, erabilera ez da inguruko beste erdara nagusietan bezalakoa («he/she/his/her», ingelesean; «el/ella/ellos/ellas, nosotros, nosotras...», gaztelaniaz edo «il/elle/ils/elles...», frantsesez); euskaraz izenordainek ez dute genero markarik. Beraz,

izenordainetan genero gramatikala markatzen duen hizkuntza batetik euskarara itzuli behar den aldiro milaka erabaki hartu behar izaten ditu itzultzaileak.

Euskal letren munduan (euskal itzulpengintzan, euskal itzultzaileen artean...) badira genero gramatikalaren auzian interesa erakutsi duten zenbait itzultzaile, eta hauetako batzuek beren gogoeta eta ikerketen berri eman zuten EIZIEren *31 eskutik* blogean.

Aiora Jakak, *Itzultzaileon kontzientzia feminista... ala matxista?* izenburua duen 2013ko urriaren 21eko blog sarreran dioenez, hasiera batean euskararen genero-bereizketa eza abantaila bezala ikusi arren, gerora abantaila hori arazo bihurtu zitzaion, izan ere beste hizkuntzetako itzultzaileek hartu behar ez dituzten erabakiak hartzera behartuta ikusten baitzuen bere burua.

Erdarako maskulino generikoa euskaratzerako garaian arazorik sortzen ez den arren, arazoak genero marka espezifikoa denean sortzen dira: *un amigo* edo *una amiga* **itzuli behar direnean**, alegia, biak baitira «lagun bat». Bere gogoetan, genero espezifikoak itzultzerakoan kontzientzia matxista gailentzen dela adierazten du; subjektua emakumezkoa denean bakarrik sentitzen baitugu genero marka espezifikatze beharra, forma maskulinoa forma generikotzat hartuta.

Bakartxo Arrizabalagak 2015eko maiatzaren 29an argitaraturiko *Gizon abeslari burusoila* blog sarreran, Jakarenaren antzeko hausnarketa bat egiten du. Arrizabalagak dio generoa eta sexua markatzen duten hizkuntzen sexismoa ez dela markatzeagatik beragatik adierazten, ez dela markatzea bera sexista; markatze moldean agertzen dela sexismoa, hau da, markatzerakoan agerira sortzen direla hizkuntzaren egile kolektiboaren –eta banakoaren– ikusmolde sexistak.

Gizakien arteko generoa markatzeak, maiz emakumeak agerrarazten ditu, nabarmendu gabe, hau da, gizonetzkoen parean eta ez emakume gisa nabarmendurik.

Euskarari dagokionean, aldiz, itzultzaileak erabakiak hartu beharrean aurkitzen dira, eta horrelako kasu baten adibide bat aurkezten digu: frantseseko «Cantatrice» hitza euskaratzerakoan itzultzaileak hartutako erabakiaren inguruan gogoeta egiten du.

La cantatrice chauve (1950) liburuaren izenburua dela eta egiten du gogoeta; izan ere, euskarazko bertsioaren lehen itzulpenean Jon Muñozek *Abeslari burusoila* bezala argitaratu baitzuen 2001ean; berrargitalpenean, berriz, *Emakume abeslari burusoila* (2011) jarri zion.

Beraz, Arrizabalagaren ustetan, izenburu berrian Muñozek abeslaria emakume bihurtzen du, gizon ez bihurtzeko asmotan, eta beraz emakumeak eta gizonak bi maila ezberdinetan ezartzen ditu; gizonak bi gauza izateko aukera edukirik, gizon nola abeslari, eta emakumeak, aldiz, emakume besterik ez.

Hala, hor ikusten da euskaraz ere, neutroa maskulino dela, ez gramatikalki, baina bai ideologikoki, gainerako hizkuntzetan bezala.

Bego Montoriok, aldiz, ikerketa txiki bat egin zuen 2012ko abenduaren 19an argitaratutako *Izenburuak eta genero markak* blog sarreran, genero gramatikala zehaztuta zuten hainbat literatur-lanen jatorrizko eta xede izenburuak alderatuta. Horretarako, Literatur Itzulpenen Katalogotik genero marka maskulinoa zuten zazpi izenburu eta genero marka femeninoa zuten beste zazpi izenburu hautatu zituen.

Aukeratutako laginetik jatorrizko izenburuak marka maskulinoa zuten kasu guztietan, euskarazko bertsioan ez zegoen inongo genero markarik; horren adibide da *Rameauren iloba (Le neveu de Rameau)*, euskaraz «iloba» emakumezkoa zein gizonezkoa izan baitaiteke. Genero marka femeninoa zuten izenburuen artean, aldiz, ia inork ez zuen estrategia hori erabili. Berak azaltzen duenez, itzultzaileek marka femeninoa ezarri zuten, gehienetan, «emakume» edo antzerako hitzen bat baliatuta; horren adibide dira: *Erromako emakumea, Ijito nexka* eta *Espainiar andere ingelesa*. Aztertutako izenburuetatik, genero markarik gabeko adibide bakarra *Lihn jaunaren biloba* zen.

Beraz, Montoriok berak ere Jakak eta Arrizabalagak ateratako ondorio bera atera zuen, euskarak berezkoa ez duen araua izan arren, erdal maskulinoak ez omen duela markarik behar euskarazkoan eta erdal femeninoak, aldiz, bai. Euskal itzultzaileen artean gailentzen dela dirudien estrategia hori aurreko atalean aipatutako «MAN Principle» teknika da.

Hau guztia kontuan harturik, nire lanean euskal itzultzaileen artean genero markak itzultzeko zer teknika erabili ohi duten identifikatzea dut helburu. Horretarako 4 ipuinez osaturiko lagin bat erabiliko dut.

3. Metodologia

Lan honen nondik norakoak definitzen ari ginela, lagin egoki bat aurkitzea ezin bestekoa zela ikusi genuen. Horretarako hainbat zerrenda ezberdin egin genituen autore eta liburu

ezberdinekin. Horien artean lagin egokia bilatzen ari ginela, ezinbestekoa iruditu zitzaigun ipuin-liburuak hautatzea; izan ere, autore bakoitzaren ipuin bat aztertuz gero, lana askoz ere osatuagoa eta baliagarriagoa izango baitzen; hainbat itzultzailearen estrategiak aztertu ahal izango genituelako, eta ez liratekeelako soilik idazle jakin bat itzultzeko erabilitako estrategiak.

Behin erabaki hori hartuta, azterketa homogeneouskoa izan zedin, aztergaien xede hizkuntzak bera izan behar zuela erabaki genuen. Genero gramatikalak presentzia handia zuen hizkuntza bat hautatu behar genuen, eta ingelesa hizkuntza egokia zela iruditu zitzaigun.

Hizkuntza hautatu ostean, gure lanerako hautatuak izango ziren ipuinek gutxienez emakumezko eta gizonezko pertsonaia bat izan behar zutela erabaki genuen; horrela genero marka aldaketa nabaria izango baitzen. Jakina denez, literatura oso androzentrista izan da urteetan zehar, eta emakumeen pertsonaiak urriak izan dira. Emakumeen literaturan, aldiz, emakumeen pertsonaiek presentzia handiagoa dute, eta beraz baieztapen horiei eutsita lagina askoz ere gehiago murriztu genuen. Sei liburuko lagin batekin utzi gintuen horrek; idazle denak aski ezagunak eta bat izan ezik emakumezkoak denak. Gizonezko bakarra Raymond Carver dugu; bera aukeratzeko arrazoia, bere ipuinetan langile klaseko emakume eta gizonen arteko harremanak lantzen zituela izan zen; hori dela eta, jokoa emango zigula pentsatu genuen.

Hasiera batean liburu denen ipuinei begiratu bat eman genien, eta batzuk ez ziren gure beharretara egokitzen; beraz, lauko lagin batekin amaitu genuen.

Hautatutako liburu bakoitzetik liburu bat hautatu ostean, jatorrizko ipuin bakoitza esaldiz esaldi aztertzen joan eta genero markadun izen, izenordain edo eta adjektibo bat aurkituz gero, euskarazko bertsioan erabilitako baliabideekin aztertzen genuen. Baliokideak azpimarratu eta horrela, esaldiz esaldi aztertu genuen ipuin bakoitza.

Behin baliabideak ordenagailuan idatzi eta genero markak azpimarratuta genituela, erabilitako estrategia bakoitza bereizgarrien arabera sailkatu genuen multzo ezberdinak sortuta. Multzo bakoitzari kolore bat esleitu genion, eta ipuin bakoitzean izenordain, izen eta adjektiboak azpimarratu genituen estrategien baitan. Ipuinak koloretan sailkatuta genituenean, azterketa kuantitatibo bat egin eta teknika bakoitzaren erabileraren ehunekoak atera genituen.

Aukeratutako eta aztertutako ipuinen artean guztiz funtzionatzen ez zuen ipuin bat zegoela ikusi genuen, eta ondorioz liburu bereko beste batekin saiatu ginen. Zorionez aldaketa onerako izan zen, eta ipuinaren bereizgarriek azterketa osatuago bat eskaini ziguten.

Azkenik, emaitza horiek aztertu eta estrategia bakoitza erabili izanaren zergatia ondorioztatzen saiatu ginen.

Jarraian, aztertutako testu eta itzultzaileen azterketa proposatzen dugu. Ipuin bakoitzaren azterketa osoa ikusi nahi izanez gero, eranskinetan dago eskuragarri.

4. Testuen azterketa

4.1. Raymond Carver: Zergatik ez duzu dantza egiten?

Raymond Carver (1939-1988) estatubatuar idazlea zen. Hainbat poema liburuz gainera, lau kontakizun liburu argitaratu zituen, eta kontakizun laburrek eman zioten hain zuzen osperik handiena, Estatu Batuetan nahiz atzerrian. Kontakizun liburu horietako bat dugu *What we talk about when we talk about love* (1981).

Euskarazko bertsioa 2003an argitaratu zen, EIZIEren Literatura Unibertsala izeneko bildumaren parte, eta Koro Navarrok (Donostia, 1955) itzulia da. Navarrok hainbat eta hainbat idazle ospetsu itzuli ditu; besteak beste, Patricia Highsmith, Edgar Allan Poe eta Suzanne Collins.

Lan honetan aztertuko dudan lehen ipuinaren jatorrizko izenburua «Why Don't You Dance?» da; «Zergatik ez duzue dantza egiten?» euskaraz, eta honakoa da ipuinaren argumentua:

«Tipo» batek bere etxea hustu du, eta altzari denak atera ditu bere lorategira, eta denak etxe bat balitz bezala antolatu ditu bertan.

«Neska» eta «mutila» bezala ezagutzen ditugun bi pertsonaia lorategira hurbildu eta altzarien kalitatea egiaztatzeko asmoarekin denak probatzen dituzte; prezio onean egonez gero erosteko.

Hori dena gertatu bitartean, etxeko jabea whisky botila batekin hurbiltzen zaie. Hirurek edateari ekin eta denbora gutxira elkarrekin dantzan amaitzen dute.

Istorioaren amaieran, neskak lagun bati gertatutakoa kontatzen dio.

Ipuinean zehar, itzultzaileak hainbat estrategia erabili ditu genero markak itzultzeko garaian, eta horiek aipatuko ditut jarraian hainbat adibiderekkin:

- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskaraz omititu:
 - In the kitchen, **he** poured another drink and looked at the bedroom suite in front of **his** yard. → Sukaldean, beste kopa bat atera eta aurreko lorategian zeuden logelako altzariei begiratu zien.
 - That morning **he** had cleared out the closets. → Goiz hartan armairuak hustu zituen.
 - **He** lit a cigarette, looked around, flipped the match in the grass. → Zigarreta bat piztu zuen, ingurura begiratu zuen, belarretara bota zuen pospoloa.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko izenordain neutro batekin ordezkatu:
 - Nightstand and reading lamp on **his** side of the bed → gau mahai eta lanpara txikia ohearen **bere** aldean
 - **His** side → **Bere** aldea
 - It occurred to him that **he** wouldn't, either → **Bera** ere ez litzatekeela geldituko bururatu zitzaion.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - nightstand and reading lamp on **her** side. → gau mahaia eta lanpara txikia **emaztearen** aldean.
 - **He** sat down the sofa to watch → **Mutila** sofan eseri zen telebista ikustera
 - **He** looked around → **Mutilak** ingurura begiratu zuen.

- Ingeleseko generodun izena euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - The **girl** sat on the bed → **Neska** ohearen gainean eseri zen.
 - **The boy** laughed, but for no good reason → **Mutilak** barre egin zuen, hartarako arrazoirik gabe, ordea
 - **The man** came down the sidewalk with a sack from the market → **Gizona** espaloian behera zetorren, eskuan supermerkatuko poltsa handi bat zekarrela.

Ipuinean zehar erabilitako estrategiak lau diren arren, horien artean batzuen erabilera gailentzen da. Hona hemen portzentajeak

Estrategia	Portzentajea
Genero markadun izenordaina → Ø	74/130 (%57,69)
Genero markadun izenordaina → izenordain neutroa	3/130 (%2,31)
Genero markadun izenordaina → generodun izena	19/130 (%14,61)
Generodun izena → generodun izena	33/130 (%25,38)

Taula 1

Istorioan 3 pertsonaia dauden arren, ipuinaren hasieran etxeko jabea den gizona soilik azaltzen da. Hasierako une horretan, euskarazko bertsioan ez dakigu pertsonaia horren generoa zein den, ingeleseko genero markadun izenenordainen omisioa egon baita euskaraz. Gero, ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko izenordain neutroarekin ordezkatzan duen estrategia erabiltzen da «gizon» horri erreferentzia egiteko; bere generoa ez baitugu ezagutzen.

In the kitchen, he poured another drink and looked at the bedroom suite in front of his yard.	Sukaldean, beste kopa bat atera eta aurreko lorategian zeuden logelako altzariei begiratu zien.
---	---

(...) Nightstand and reading lamp on his side of the bed, nightstand and reading lamp on her side.	(...) gau mahai eta lanpara txikia ohearen bere aldean, gau mahaia eta lanpara txikia emaztearen aldean.
--	--

Taula 2

Adibidean ikus dezakegunez, emaztearena da ezagutzen dugun lehen generoa; berarekin batera bigarren estrategia bat erabiltzen baitu, «her» esaten den bakoitzean «emazte» hitza erabiltzea; hau da, ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko generodun izen batekin ordezkatzeko du.

Behin bi pertsonaia hauek ditugula, bikote gaztea aurkezten digu; «mutil» eta «neska» bezala izendatzen dituenak. Bikote gazte hau ezagutu ondoren, «bera» horren, izenordain neutroaren, erabilera izugarri murrizten da, eta pertsonaiak «mutil» eta «neska» bezala izendatzen ditu behin eta berriz jatorrizko testuan «she» eta «he» izan arren.

Ipuina aurrera doala laugarren strategiaren erabilpena nagusitzen da hirugarren pertsonaiari berriz ere sarrera emateko. Ingeleseko generodun izenak euskarazko generodun izenarekin ordezkatzeko dira: «The boy» «mutila» da, «the girl» «neska», eta azkenik, «the man» «gizona». Testuaren hasieran ere «the wife» «emaztea» erabiltzen da gizonaren emazteari erreferentzia egiteko.

The boy laughed, but for no good reason. For no good reason, he switched the reading lamp on.	Mutilak barre egin zuen, hartarako arrazoirik gabe, ordea. Orobat arazorik gabe, gau mahaiko lanpara piztu zuen.
The girl brushed away a mosquito, whereupon the boy stood up and tucked in his shirt.	Neskak eltxo bat kendu zuen gainetik, eta mutilak zutitu eta alkandora galtzen barruan sartu zuen.
“Whatever they ask, offer ten dollars less. It’s always a good idea” she said. “And besides they must be desperate or something”	–Eskatzen dutena eskatzen dutela, hamar dolar gutxiago eskaini zuk. Ideia ona izaten da hori beti– esan zion neskak –.Gainera, arront etsita egon behar dute.
The man came down the sidewalk with a sack from the market. He had sandwiches,	Gizona espaloian behera zetorren, eskuan supermerkatuko poltsa handi bat zekarrela.

beer whiskey. He saw the car in the driveway and the girl on the bed. He saw the television set going and the boy on the porch.	Ogitartekoak, garagardoa, whiskia zekartzan. Sarbidean autoa ikusi zuen eta neska ohearen gainean. Telebista martxan ikusi zuen eta mutila atarian.
--	---

Taula 3

Istorioaren erdialdean, hasieran soilik azaldu den gizona ageri da berriro. Pertsonaia hau sartu ahala, laugarren estrategia hori gailentzen da; nahiz eta zati bakoitzean aipatzen den pertsonaia baten inguruan hitz egiten jarraitzen denean ingelesezko genero markadun izenordainak azaltzen diren, eta euskaraz horien omisioa egiten den.

The boy came back with the watered whiskey. He cleared his throat and sat down at the kitchen table. He grinned. But he didn't drink anything from his glass.	Mutila whiskia urarekin zekarrela itzuli zen. Eztarria leundu eta sukaldeko mahaian eseri zen. Irribarre egin zuen. Baina ez zuen edan.
The man gazed at the television. He finished his drink and started another. He reached to turn on the floor lamp. It was then that his cigarette dropped from his fingers and fell between the cushions.	Gizona telebistari begira zegoen. Bere whiskia bukatu eta beste bat edaten hasi zen. Eskua luzatu eta lanpara piztu zuen. Une hartan zigarreta hatzen artetik irristatu eta kuxinen artean erori zitzaion.

Taula 4

4.2. Katherine Mansfield: Etxekoandrearen neskamea

«Etxekoandrearen neskamea» («The Lady's maid») da aztertu dudana bigarren ipuina. *Lorategiko Festa (The Garden Party)* izeneko ipuin-liburuaren azken ipuina da eta Katherine Mansfield (Zeelanda Berria 1888- Frantzia 1923) idazle modernistak argitaratu zuen 1922an. Mansfieldek ipuinak idazten zituen batik bat, eta generoaren egile gorenekotzat jotzen da gaur egun.

Liburu hau Anton Garikanok (Tolosa 1967) itzuli zuen 1998an, eta EIZIEren *Urrezko Biblioteka* izeneko bildumarako berrargitaratu zena 2011n. Itzulpenaren Euskadi Saria

irabazitakoa da Garikano, besteak beste. Euskaratu dituen egileetako batzuk dira Kafka, Woolf, Dostoievski...

Aipatu berri dudan bezala, liburu honen bi argitalpen dauden arren, nik *Urrezko Biblioteka* bildumakoa erabili dut lan hau egiteko; 2011n argitaratutakoa, hain zuzen ere.

«Etxekoandrearen neskamea» ipuinean Ellen (neskamea) dugu pertsonaia nagusia. Ellen, «madam»ekin (bere etxekoandrearen gonbidatu ezezagunarekin) hitz egiten ari den arren, kontsolamendu bila baitabil, bakarrizketa moduko bat dela esango genuke ez baitu inongo erantzunik jasotzen istorio osoan. Lehenengo pertsonan kontatuta dago; Ellenek kontatzen du, eta madam eta etxekoandrea dira pertsonaia nagusiak.

Istorioan zehar Ellenen pertsonaiak bere bizitzan zehar egon diren pertsonaien inguruan hitz egiten du. Modu ordenatuan aurkezten dizkigu guztiak, eta etxekoandrea gain besteak ez dira ipuin osoan zehar azaltzen; une konkretu batean ageri da bakoitza.

Honako estrategiak erabili ditu Garikanok genero markak itzultzeko:

- Ingeleseko genero markadun izenordainaren omisioa euskaraz:
 - **She** drinks in the bed after **her** prayers to warm **her** up → Otoitz egin ondoren edaten du ohean, berogailu bezala.
 - And **she** won't have a cushion, you know, madam; **she** kneels on the hard carpet. → Eta, gainera, ez du kuxinik nahi izaten, madam; tapiz gorrian bealunikatzen da.
 - Wild, **he** was, at the fright I'd made myself. → Sutan jarri zen nik egindako txikizioa ikusita.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko izenordain neutro batekin ordezkatu:
 - And it was helping **her** I met my lady... → Eta **hari** laguntzen nengoela ezagutu nuen nire etxekoandrea...
 - **He'd** stop at nothing → **Haren** ahaleginak!
 - I cried, running to stop **her** → (...) egin nuen oihu, **hura** geldiarazteko lasterka.

- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - **He** had a little flower-shop just down the road across from where we was living → **Mutilak** loradenda txiki bat zuen, kalean behera joanda, gu bizi ginenetik beste aldean.

- Ingeleseko generodun izena euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - I had my young **ladies** → **Andereñoekin** nengoen.
 - So my **aunt** took me → Hala, **izebak** hartu ninduen.
 - No, madam, **grandfather** never got over it → Ez, madam, **aitonak** ez zuen inoiz gainditu.

- Ingeleseko genero markarik gabeko sintagma batean euskaraz generodun adjektiboa gehitu:
 - Off we went; solemn little loves they were; each had a hand → Hara joan ginen; **poxpolin** hutsak ziren; bakoitza esku batetik helduta.

- Ingeleseko genero markarik gabeko izenordaina euskarazko hitanoaren erabilerarekin ordezkatu:
 - ‘That’ll teach **you!**’ he said → «Horrela ikasiko **dun**», esan zuen.

- Ingeleseko genero markadun izena euskarazko generorik gabeko izen batekin ordezkatu:
 - My lady had her two little **nieces** with her (...) → Etxekoandrari bi **iloba** txiki etorri zitzaizkion bisitan (...)

Estrategia	Portzentajea
Genero markadun izenordaina → Ø	93/119 (%78,15)
Genero markadun izenordaina → izenordain neutroa	8/119 (%6,72)
Genero markadun izenordaina → generodun izena	1/119 (%0,84)
Generodun izena → generodun izena	14/119 (%11,76)
Genero markarik gabeko sintagma → generodun adjektiboa.	1/119 (%0,84)
Genero markarik gabeko izenordaina → hitanoaren erabilera	1/119 (%0,84)
Genero markadun izena → generorik gabeko izena	1/119 (0,84)

Taula 5

Taulan garbi ikusi daitekeen bezala estrategia bat gailentzen da beste guztien gainetik; hau da, itzultzaileak ingeleseko genero markadun izenordainaren omisioa egitea erabaki du gehienetan.

Aurretik aipatu dudana bezala, Ellenek bere bizitzako gertaera ezberdinak kontatzen dizkio madam delakoari. Gertakizun horietan bere familiako zein kanpoko pertsonaiak ageri dira; beraz, etengabe aipatzen dituen «he» eta «she» horiek unean une pertsonaia ezberdinei egiten diete erreferentzia.

Grandfather was furious! He caught hold of the tongs –I shall never forget it –grabbed me by the hand and shut my fingers in them.	Aitonaren haserrea! Hartu zituen aliketak –ez dut sekula ahaztuko–, heldu zidan eskutik eta hatzak harrapatu zizkidan.
‘That’ll teach you! ’ he said.	«Horrela ikasiko dun », esan zuen.
... Well, you see, madam, he’d taken such pride in my hair.	... Izan ere, madam, zeharo harro zegoen nire ilearekin.

He used to sit me up on the counter, before the customers came, and do it something beautiful –big, soft curls and waved over the top.	Mahai gainean esertzen ninduen bezeroak etorri aurretik, eta zerbait apaina egiten zidan: kizkur handi, leunak eta goialdea izurra.
---	---

Taula 6

Hasiera batean, genero markadun izenordainen omisioaren ondorioz euskal irakurlea pertsonaien artean gal daitekeela pentsa dezakegun arren, adibidean ikus dezakegu pertsonaia bat azaltzen denean izen berezi bat edo pertsonaia definitzen duen izen bat ageri dela; beraz, izenordainak ezabatu arren uneoro noren inguruan ari den jakin dezakegu.

Baina, bada atenzioa eman didan estrategia bat: bada jatorrizkoan genero markarik ez duen esaldi bat, eta horri generodun adjektibo bat gehitzen dio Garikanok. Ipuinaren atal horretan, istorio bat kontatzen ari da Ellen; behin etxekoandreari bi iloba joan zitzaizkiola bisitan. «Iloba» hitzak ez du generorik, baina ingeleseko bertsioan «nieces» hitza erabiltzen da; hau da, iloba horiek emakumezkoak dira. «Andereño» hitzarekin iloba horien generoa zein den dakigun arren, itzultzaileak «solemn little loves» esaldiaren ordeztan nahiago izan du generoa markatzen duen «poxpolin» hitza erabili.

My lady had her two little nieces with her (...)	Etxekoandreari bi iloba txiki etorri zitzaizkion bisitan (...)
‘Now, Ellen,’ she said, ‘I want you to take the two young ladies for a ride on the donkeys.’	«Aizan, Ellen», esan zidan, «Eraman itzan bi andereño txiki hauek astoan ibiltzera».
Off we went; solemn little loves they were; each had a hand.	Hara joan ginen; poxpolin hutsak ziren; bakoitza esku batetik helduta.

Taula 7

Horrez gain, erabilitako estrategien aniztasuna urria den arren, bada beste estrategia interesgarri bat: hitanoaren erabilera. Ellen bere txikitako pasarte bat kontatzen ari dela, aitonaaren pertsonaia ageri da. Aitonarekin gertatutakoa kontatzen ari dela, honek esandakoa ageri zaigu. Ingeleseko «he» horen omisioa egin da euskaraz, baina ingelesekoan ageri den «you» horrek generorik ez duen arren euskarazkoa hitanoaren erabileraz adierazita dago; pertsonaia horrek noka hitz egiten du. Une horretan bi

pertsonaia soilik daudenez (Ellen eta aitona), aitona Elleni hizketan ari zaiola ondoriozta dezakegu.

Grandfather was furious! He caught hold of the tongs –I shall never forget it –grabbed me by the hand and shut my fingers in them.	Aitonaren haserrea! Hartu zituen aliketak –ez dut sekula ahaztuko–, heldu zidan eskutik eta hatzak harrapatu zizkidan.
‘That’ll teach you!’ he said.	«Horrela ikasiko dun », esan zuen.

Taula 8

4.3. Dorothy Parker: Telefono-dei bat

Hona hemen gu biok Dorothy Parker (AEB 1893-1967) idazle estatubatuarraren ipuin antologia bat da. Parker bere garaiko idazlerik buruargien, luma-zorrotzen eta umoretsuenetakoa izan zen; New Yorkeko Algonquin hoteleko Mahai Biribilaren inguruan biltzen zirenetarikoa. Poesia, ipuingintza, zutabegintza, kritika eta gidoigintza landu zituen. *Hona hemen gu biok* izeneko liburuak 1923tik 1928ra bitarte orduko zenbait kazeta eta aldizkarik argitaratu zizkioten hamasei istorio biltzen ditu.

Antologia Mirentxu Larrañagak (Azkoitia 1966) itzuli zuen euskarara 2005ean; hau ere Literatura Unibertsala izeneko bildumarako. Honakoa bere bigarren literatur itzulpena izan zen. Gaurdaino beste bi literatur lan gehiago itzuli ditu: *Pijama marradunaz jantzitako mutila* (2006) eta *Peaceful soldadua* (2006). Egun, Berria egunkariko zuzentzaileen taldeko kidea da.

Hona hemen gu biok antologiaren istorioetako bat da hurrengo aztergaia; «Telefono-dei» bat («A Telephone Call»). Istorioak emakume ezezagun baten bakarrizketa bat aurkezten digu. Pertsonaia nagusi hau mutil baten telefono-dei baten zain dago, eta desesperazioak jota Jainkoari erreguka dabil mutilak dei diezaion. Ipuin osoan zehar pertsonaia berak hitz egiten du (telefono deiaren zain dagoenak) eta bakarrizketa moduko bat du Jainkoarekin.

Hona hemen ipuinean zehar itzultzaileak erabilitako estrategiak:

- Ingeleseko genero markadun izenordainaren omisioa euskaraz:
 - Maybe **he** had to stay at **his** office → Agian bulegoan geratu behar izan du.

- If **he** were dead, **he** would be mine → Baldin eta hilda balego, nirea izango zatekeen.
 - I wish to God I could make **him** cry → Nahiago nuke, Jauna, ahal baniezaio negar eginarazi.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko izenordain neutro batekin ordezkatu:
 - **He** said he would telephone at five o'clock → **Berak** esan zidan telefonoz deituko zidala bostetan.
 - But I hadn't talked to **him** in three days – not in three days. → Baina ez nuen **berakin** hitz egin orain dela hiru egun... txintik ere ez, hiru egunotan.
 - **He** doesn't cry → **Berak** ere ez du negar egiten.
- Ingeleseko generodun izena euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - Suppose a young **man** says he'll call a **girl** up, and then something happens, and he doesn't. → Demagun **mutil** batek esan diola **neska** bati telefonoz deituko diola, eta gero zerbait gertatzen da, eta ez dio deitzen.
 - Suppose he were another **girl**. → Demagun beste **neska** bat dela.
- Ingeleseko genero markarik gabeko izenordaina euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - He couldn't have minded my calling him up. I know **you** shouldn't keep telephoning **them** – I know they don't like that → Ez ziokeen axola beharko nik berari telefonoz deituko banio; badakit **emakumeok** ez dugula **gizonezkoei** deika eta deika aritu behar...Badakit ez zaiela gustatzen.
 - **They** don't like **you** to cry. → **Gizonezkoei** ez zaie gustatzen **emakumezkoak** negarrez aritzea.

- **They** don't like **you** to tell **them** they've made you cry. → **Gizasemei** ez zaie gustatzen, **emakumeok** kontatzea, negar eginarazi digutela.

Estrategia	Portzentajea
Genero markadun izenordaina → Ø	134/154 (%87,01)
Genero markadun izenordaina → izenordain neutroa	6/154 (%3,90)
Generodun izena → generodun izena	3/154 (%1,95)
Genero markarik gabeko izenordaina → generodun izena	11/154 (%7,14)

Taula 9

Ipuin honen berezitasun nagusietako bat dugu generoaren gatazka; izan ere, euskarazko bertsoan ipuinaren hasieran, ez dakigu pertsonaien generoa zein den. Ingeleseko bertsoan aldiz, badakigu telefono deia egin behar duen hori gizona dela («him» izenordainaren erabilera dela eta) baina, ipuin osoan zehar ez dakigu telefono deiaren zain dagoen pertsonaiaren generoa zein dugun; nahiz eta ipuina idatzi zen garaia kontuan hartuta, protagonista emakumezkoa dela ondoriozta dezakegun.

Aipatutako ondorio hori kontuan hartuta, itzultzaileak telefono deiaren zain dagoen pertsonaia emakumezkoa dela adierazten digu. Horretarako erabili duen estrategia ezin interesgarriagoa iruditu zait: genero markarik gabeko izenordainak generodun izenarekin ordezkatu ditu.

He couldn't have minded my calling him up. I know you shouldn't keep telephoning them – I know they don't like that	Ez ziokeen axola beharko nik berari telefonoz deituko banio; badakit emakumeok ez dugula gizonezkoei deika eta deika aritu behar...Badakit ez zaiela gustatzen.
---	---

Taula 10

«Emakumeok» hitzaren bidez protagonista emakumezkoa dela ondoriozta dezakegu eta bertan diodenaren arabera, gizona baten deiaren zain dagoela jakin dezakegu ere. Nire

ustez gauzarik bitxia ingelesezko «them, they, you» horiek generoa markatzeko erabili izana da. Hona hemen adibide gehiago:

They don't like you to tell them they've made you cry.	Gizasemei ez zaie gustatzen, emakumeok kontatzea, negar eginarazi digutela.
They don't like you to tell them you're unhappy because of them .	Gizonezkoek ez zaie gustatzen, emakumeok kontatzea, zorigaitzokoak garela euren erruz.
They hate you whenever you say anything you really think.	Gizonezkoek gorroto dituzte pertsona atsekabetuak.

Taula 11

4.4. Alice Munro: Egurra

Azterturiko azken ipuina 2009an Alice Munro (Kanada 1931) argitaratutako *Too Much Happiness* (euskaraz *Zorion handiegia*) ipuin bildumakoa da. Munro hamaika ipuin-bilduma, ipuin hautatuen bi ale eta nobela bat argitaratu ditu. Sari asko eskuratu du bere idazle ibilbidean; besteak beste, Kanadako Gobernadore Nagusiaren Literatura Saria lortu du hiru aldiz, eta Amerikako Estatu Batuetako Literatur Kritikaren Sari Nazionala. Bere istorioak hainbat agerkaritan atera dira eta bere bildumak makina bat hizkuntzataraz itzuli dira.

Hamahiru hizkuntza horietako bat dugu euskara, noski. *Zorion handiegia* (2012) Nagore Tolosa, Naroa Zubillaga, Aiora Jaka eta Itziar Otegik itzuli zuten arren, aztertutako ipuina «Egurra» («The wood») Zubillagaren lana dugu.

Naroa Zubillaga (Andoain 1982) euskal itzultzailea eta EHUko Itzulpengintza eta Interpretazioko graduko irakaslea dugu. Zenbait literatur lan euskaratuak ditu, tartean Literatura Unibertsala bildumako Franz Kafkaren *Bizian argitaratuak* ipuin-bilduma.

«Egurra» izeneko istorioaren protagonista Roy dugu; tapizari eta altzari zaharberritzailea den gizon bakartia. Lea izeneko emazte ezin alaiagoa du; inork baino hobeto ezagutzen eta ulertzen duena. Baina, Royk badu pasio ezkutu bat: egurra moztea. Denek dakite izugarri gustuko duela; baina, inork ez daki zenbateraino pentsatzen duen horretan. Lea depresioan erori eta Royk zuhaitzak ditu salbatzaile; bertan, arazoak ahazten baititu. Diane, iloba, laguntza handia da beraiantzat, eta Learen depresioarekin amaitzeko lanean dabilena.

Hona hemen erabilitako estrategiak:

- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskaraz omititu:
 - **He** has a four-wheel-drive truck and a chain saw and an eight-pound splitting ax → Badauzka lau gurpileko trakziodun kamioneta, motozerra eta zortzi libra pisatzen duen aizkora.
 - **She** didn't mean that **his** workmanship might suffer but **his** timetable. → Ez zuen esan nahi lan-kalitatea jaitsiko zenik; epe kontua zen.
 - **He** never drank when **he** was working on the furniture, or going into the bush – just on these Sundays full of visitors → Ez zuen inoiz edaten altzariekin lanean ari zenean edo zuhaitzetara zihoanean; bisitariz betetako igande haietan baino ez.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko izenordain neutro batekin ordezkatu:
 - Roy misses the wife he was used to, with **her** jokes and energy → Royk ondoan izatera ohituta zegoen emakumea falta du, **haren** txantxak eta energia.
 - And in a way **his** thoughts about wood are too private –they are covetous and nearly obsessive → Zentzu batean, gainera, egurrari buruzko **bere** pentsamenduak pribatuegiak dira.
 - Even what is worthless for **his** purposes will interest him → **Bere** helburutarako baliagarria ez den horrek ere interesa pizten dio.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - She had the idea of **his** business being an obligation –something he did to help people out → Leak betebeharrak moduan ikusten zuen **senarraren** negozioa, jendea laguntzeko egiten zuen zerbaiten modura.

- **She** thought that she was catching all the germs people brought into the dentist's office → **Emazteak** pentsatu zuen pazienteek dentistanera ekarritako germen guztiak harrapatzen ariko zela.
 - He says that the pills he's got **her** on will keep her from sinking too low → Ematen dizkion pilulek **emaztea** behegi hondoratu ez dadila laguntzen dute, dio.
- Ingeleseko generodun izena euskarazko generodun izen batekin ordezkatu:
 - Apparently, her **husband** thinks that is all right → Hori, dirudienez, egoki ikusten du **senarrak**.
 - When he first started going to the bush **Lea** used to worry about him → Zuhaitzetara joaten hasi zenean, **Lea** kezkatu egiten zitzaion.
 - Roy misses **the wife** he was used to, with her jokes and energy. → Royk ondoan izatera ohituta zegoen **emakumea** falta du, haren txantxak eta energia.
- Ingeleseko genero markadun izenordaina izen berezi batekin ordezkatu:
 - **He** doesn't know what to do about it. → Hori dela eta, **Royk** ez daki zer egin.
 - It is heated by a woodstove and getting the fuel for the stove has led **him** to another interest, which is private but not secret. → Egur-berogailu batek berotzen lantokia, eta berogailuarentzako erregaia lortu beharrak bestelako zaletasun bat ekarri dio **Royri**
 - A day or so after the first snow, **he** is out in a bush looking at some girdled trees → Aurreneko elurra bota eta egun bat-edo pasatuta, **Roy** zuhaitzi batean da, markatutako zuhaitz batzuei begira.

- Ingeleseko generorik gabeko sintagma batean euskarazkoan generodun izen bat txertatu:
 - Of course, it's natural that he'd feel a bit cautious, not knowing if this is for good, or just a flash in the pan → Jakina, normala da Royk zuhur jokatzea, ez baitaki **emaztearena** onerako den ala izar iheskorren moduan pasatutako aldaketa bat den.

- Ingeleseko generorik gabeko sintagma batean hitanoa erabiltzea:
 - “That’s a pile of wood,” he says easily → –hori egur mordoxka bat **duk** – esan dio lasai-lasai.
 - Seems this fellow runs a sawmill → Zerrategi bat omen **zeukak**
 - and he’s got a contract to the River Inn and he’s going to supply them all the wood they want for the winter → eta River Inn ostatuarekin kontratua omen **zeukak** haiei negurako behar ditene egur guztia emateko

- Ingeleseko genero markadun izena euskarazko generorik gabeko izen batekin ordezkatu:
 - When Lea asked him what he thought was the matter with the inn, the only thing he could think of to say was that when Diane had applied for a job there, as a **waitress**, they had turned her down, saying that she was overweight → Leak ostatuarekin zuen arazoaz galdetu zionean, Royk esaten asmatu zuen bakarra izan zen Dianek bere burua han **zerbitzari** lanetarako aurkeztu zuenean errefusatu egin zutela, gizenegi zegoela esanez.

- Ingeleseko generorik gabeko sintagma batean izen berezi bat txertatzea:
 - To this knowledge, she has never driven the truck before → **Royk** dakiela, Leak ez du inoiz lehenago kamioneta gidatu.

- He has knocked his foot hoisting himself –and partly being hoisted –into the passenger seat of the truck → Bere burua gidarikidearen eserlekuan kokatzen ari dela –eta, hein batean, **Leak** kokatzen duela– kolpea jaso du oinean.

- Ingeleseko esaldiko generodun izen baten omisioa:

- Seems this **fellow** runs a sawmill → Zerrategi bat omen zeukak

Estrategia	Portzentajea
Genero markadun izenordaina → Ø	435/594 (%73,23)
Genero markadun izenordaina → izenordain neutroa	34/594 (%5,72)
Genero markadun izenordaina → generodun izena	23/594 (%3,87)
Generodun izena → generodun izena	22/594 (%3,70)
Genero markadun izenordaina → izen berezia	70/594 (%11,78)
genero markadun izena txertatu	1/594 (%0,17)
Hitanoaren erabilera	3/594 (%0,51)
Genero markadun izena → generorik gabeko izena	3/594(%0,51)
Ø → izen berezia	2/594 (%0,34)
Generodun izen bat → Ø	1/594 (%0,17)

Taula 12

Portzentajeen taulan garbi ikus dezakegunez, ipuin honetan ere genero markadun izenordainen omisioa gailentzen da beste estrategia guztien gainetik; baina, bada orain arte azaldu ez den estrategia bat: genero markadun izenordaina pertsonaien izen

bereziakin ordezkatzea. Izan ere, istorioan narratzaileak etengabe egin behar baitie pertsonaia ezberdinei erreferentzia, eta aldaketa horien ondorioz, itzultzaileak behin eta berriz markatu behar izan baitu haien generoa edo eta haien izen berezia irakurlea gal ez dadin.

<p>She had the idea of his business being an obligation –something he did to help people out.</p>	<p>Leak betebehar moduak ikusten zuen senarraren negozioa, jendea laguntzeko egiten zuen zerbaiten modura.</p>
<p>She was embarrassed when he raised his prices –so in fact was he– and went out of her way to tell people what the materials were costing him nowadays.</p>	<p>Royk prezioak igo zituenean, Leak lotsa sentitu zuen– baita Royk ere, egia esan– eta ahal zuen guztietan kontatu zion jendeari zenbat ordaindu behar zuen senarrak materialen truke.</p>
<p>While she had her job, it was not difficult for him to make off for the bush after she had gone to work and try to be back before she got home.</p>	<p>Leak lan egiten zuen bitartean, Royri ez zitzaion zaila gertatu emaztea lanera joandakoan zuhaitzetara alde egitea eta, hura itzuli aurretik, etxean bueltan izaten saiatzea.</p>

Taula 13

Beste kasu batzuetan, aldiz, generodun izenordain horiek «senar» edo «emazte» izenarekin ordezkatzeko dituzte; horiek generodun izenak direnez ongi uler dezakegu nori egiten dion erreferentzia.

Estrategia horiez gain, hitanoaren erabilera ere azpimarratuko nuke; izan ere, jatorrizko testuan, baserritarraren generoa izena jakin ostean ondoriozta dezakegu; Suter du izena. Euskarakoan aldiz, izenaz gain, tokaren erabilerarekin ondorioztatzen dugu.

<p>Seems this fellow runs a sawmill and he's got a contract to the River Inn and he's going to supply them all the wood they want for the winter.</p>	<p>Zerrategi bat omen zeukak, eta River Inn ostatuarekin kontratua omen zeukak haiei negurako behar dituen egur guztia emateko.</p>
--	---

Roy had talked to the farmer just last week, and he has thought he had the deal pretty well sewed up, just to do the usual clean out.	Royk justu aurreko astean hitz egin zuen nekazariarekin eta tratua ederki itxita utzi zutelakoan zegoen, berak ohiko zuhaitzgarbiketara egin zezan.
“That’s a pile of wood,” he says easily.	–hori egur mordoxka bat duk – esan dio lasai-lasai.

Taula 14

Ipuin honetan ere, bada orain arte azaldu ez den beste estrategia bat: jatorrizko testuan ez dagoen izen berezi bat txertatzea xede testuan.

He has knocked his foot hoisting himself – and partly being hoisted – into the passenger seat of the truck.	Bere burua gidarikidearen eserlekuan kokatzen ari dela –eta, hein batean, Leak kokatzen duela– kolpea jaso du oinean.
---	---

Taula 15

Ingeleseko testuan «and partly being hoisted» aipatzen duenean, hau da, norbaiten laguntzaz esertzen ari dela esaten digunean, laguntzen ari zaion pertsona hori Lea dela ondoriozta dezakegu, une horretan ez baitago beste pertsonaiarik; beraz, itzultzaileak «Leak» izen berezia gehitu du esaldian.

5. Ondorioak

Kanadan 1980ko hamarkadan feminismoak izan zuen indar hori egun ere presente dagoela uste dut; izan ere, mugimendu honek azken urteetan izandako gorakada izugarria izan baita. Orain arte gutxi batzuen ardura soilik zena jendartearen gehiengoaren interes gune bihurtu da; emakume zein gizonena.

Gorakada momentu honek genero binomioaren hausturarekin bat egin du; eta horrelako gertakarien ondorio zuzen gisa, esan nahi dugun hori esateko erabiltzen dugun hizkera aukeratzean inoiz baina kontu handiagoarekin ibiltzen gara. Hizkera inklusibo baten geroz eta behar handiagoa dugula agerian gelditu da.

Lanean aipatu ditudan euskal itzultzaileen hausnarketak gogora ekarrita, urteetan zehar euskarak genero-bereizketarik ez duela goraipatu izan den arren, horrek itzultzaileei hainbat arazo sortzen dizkiela garbi ikusi da. Finean beste hizkuntza konbinaketa batzuk dituzten itzultzaileek baina erabaki gehiago hartzera behartuta baitaude.

Horrelako zailtasunak gainditzeko itzulpen feministaren estrategiak baliagarriak izan daitezkeen arren, horrek, ideologia agerian uzteaz gain testuaren manipulazioa ere badakar bere gain, eta ez nuke esango egun itzulpen mota hori euskal itzulpengintzan nabarmena denik.

Hautatutako ipuinen analisisia egin ostean, euskal itzultzaileak genero linguistikoaren markak ezabatzearen aldekoak direla esango nuke; beti ere testuak ahalbidetzen badu, noski.

Ipuin guztietan ezabaketaren estrategia nagusitzen den arren, testuek etengabe pertsonaiak aldatzen dutenean, horien izen berezi edo eta generoa markatu beharrean aurkitzen dira itzultzaileak irakurleak haria gal ez dezan. Hori dela eta, testuetan «neska» «mutil» edo eta «senar» «emazte» bezalako generodun izenen presentzia ere handia da.

Lan honen hasieran «bere» eta «hark» bezalako izenordain neutro edo genero gabekoak erabilera askoz ere handiagoa izango zela uste nuen, baina aztertutako ipuinetan erabilera urria dela ikusi dut, eta itzultzaileek ahal izanez gero horien erabilera saihesten dutela; beharrezkoa denean soilik erabilia.

Ipuin bakoitzean izendatu ditudan beste estrategiak unean une hautu ezin egokiagoak izan direla iruditzen zait; testu bakoitza testuinguru guztiz ezberdina baita, eta beraz, kasu guztietan estrategia berak ez baitira baliagarriak.

Azkenik, euskal itzultzaile hauen itzulpenak feministak direla esan ezin dudana arren, generoa ahalik eta gutxien markatzeko egin duten hautu hori feministatzat uler dezakegu. Izan ere, genero marka horien erabilera urriak binomio horren indarra murrizten baitu.

Hala ere, gai honen inguruan oraindik ere lan handia egin beharra dagoela uste dut, euskararen kasuan *31 eskutik* blogean egindako gogoeta horiez gain itzultzaileon iturri nagusietan gauza gutxi topatu baitezakegu. Horrez gain, generoak hizkuntzan duen errepresentazioaren inguruan sakon eztabaidatu behar dela sinesten dut, hizkuntzak generoa ulertzeko moduan ere eragina izan dezakeelako. Jendartea aldatzeko beharrezkoa da hizkuntzan aldaketa bat ematea.

6. Bibliografia

6.1. Aztertutako liburuak

CARVER, Raymond (1993) *What We Talk About When We Talk About Love*. London: Panther.

CARVER, Raymond (2003) *Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean*. (NAVARRO, Korok itzulua). Literatura Unibertsala. Donostia: Alberdania eta Elkar.

MANSFIELD, Katherine (1951) *The Garden Party*. Londres: Penguin Books.

MANSFIELD, Katherine (2011) *Lorategiko festa*. (GARIKANO, Anton itzultzaile). Literatura Unibertsala. Donostia: Elkar.

MUNRO, Alice (2009) *Too Much Happiness*. New York: Random House, Inc.

MUNRO, Alice (2012) *Zorion handiegia*. (TOLOSA, Nagore; ZUBILLAGA, Naroa; JAKA, Aiora eta OTEGI, Itziar itzultzaile). Donostia: Meettok.

PARKER, Dorothy (2001) *The Collected Dorothy Parker*. Londres: Penguin Books.

PARKER, Dorothy (2005) *Hona hemen gu biok*. (LARRAÑAGA, Mirentxu itzultzaile). Literatura Unibertsala. Donostia: Alberdania eta Elkar.

6.2. Erabilitako baliabideak

ARRIZABALAGA, Bakartxo (2015eko maiatzak 29) *Gizon abeslari burusoila* [blog sarrera]. 31 eskutik. Online kontsultatua: <<https://31eskutik.com/2015/05/29/gizon-abeslari-burusoila/>> Azken kontsulta data: 2019ko maiatzak 19.

BRUFAU ALVIRA, Nuria (2009) *Traducción y género: propuestas para nuevas éticas de la traducción en la era del feminismo transnacional*. Salamanca. Online kontsultatua: <<https://gredos.usal.es/jspui/handle/10366/76219>> Azken kontsulta data: 2019ko martxoak 25

CAGNOLATI, Beatriz (2013) *Traductología: Exploración de un enfoque feminista de la traducción*, in *III Jornadas del Centro Interdisciplinario de Investigaciones en Género*, 25, 26 y 27 de septiembre de 2013, La Plata, Argentina. Online kontsultatua:

http://www.memoria.fahce.unlp.edu.ar/trab_eventos/ev.3437/ev.3437.pdf Azken kontsulta data: 2019ko martxoak 25

CASTRO VÁZQUEZ, Olga (2009) (Re)examinando horizontes en los estudios feministas de traducción: ¿hacia una tercera ola? *MonTI. Monografías de Traducción e Interpretación*, 1 <<http://www.redalyc.org/resumen.oa?id=265119728008>> Azken kontsulta data: 2019ko martxoak 25

HURTADO ALBIR, Amparo (2011) Traducción y traductología: introducción a la Traductología. Madrid: Cátedra.

JAKA, Aiora (2013ko urriak 21) Itzultzaileon kontzientzia feminista...ala matxista? [blog sarrera]. 31 eskutik. Online kontsultatua: <<https://31eskutik.com/2013/10/21/itzultzaileon-kontzientzia-feminista-ala-matxista/>> Azken kontsulta data: 2019ko maiatzak 19.

MONTORIO, Bego (2012ko abenduak 19) Izenburuak eta genero markak [blog sarrera]. 31 eskutik. Online kontsultatua: <<https://31eskutik.com/2012/12/19/izenburuak-eta-genero-markak/>> Azken kontsulta data: 2019ko maiatzak 19.

MUNDAY, Jeremy (2012) *Introducing translation studies: theories and applications*. Londres eta New York: Routledge

NorDaNor: <<http://nordanor.eus/>> Azken kontsulta data: 2019ko maiatzak 18.

7. Eranskinak

7.1. Eranskina I: Zergatik ez duzu dantza egiten (azterketa)

8. Ingelesa	Euskara
In the kitchen, he poured another drink and looked at the bedroom suite in front of his yard.	Sukaldean, beste kopa bat atera eta aurreko lorategian zeuden logelako altzariei begiratu zien.
(...) Nightstand and reading lamp on his side of the bed, nightstand and reading lamp on her side. His side, her side.	(...) gau mahai eta lanpara txikia ohearen bere aldean, gau mahaia eta lanpara txikia emaztearen aldean. Bere aldea, emaztearen aldea.
He had emptied the drawers into cartons that morning, and the cartons were in the living room.	Goiz hartan tiraderak hustu eta barruko gauzak kartoizko kaxetan sartu zituen, eta kaxak egongelan zeuden orain.
That morning he had cleared out the closets (...)	Goiz hartan armairuak hustu zituen (...)
He had run an extension cord on out there and everything was connected.	Argindarra luzatzeko kable bat zeukan kanpora aterea, eta dena konektatuta zegoen.
It occurred to him that he wouldn't, either.	Bera ere ez litzatekeela geldituko bururatu zitzaion.
He sat down the sofa to watch.	Mutila sofan eseri zen telebista ikustera.
He lit a cigarette, looked around, flipped the match in the grass.	Zigarreta bat piztu zuen, ingurura begiratu zuen, belarretara bota zuen pospoloa.
The girl sat on the bed. She pushed off her shoes and lay back. She thought she could see a star. He looked around.	Neska ohearen gainean eseri zen. Zapatak erantzi eta ohean etzan zen. Agian izarren bat ikusiko zuela pasatu zitzaion burutik. Mutilak ingurura begiratu zuen.
She bounced on the bed.	Neskak jauzitxo batzuk egin zituen ohearen gainean.
He lay down on the bed and put the pillow under his head.	Mutila ohean etzan eta burkoa buruaren azpian jarri zuen.
“How does it feel?” she said.	–Zer iruditzen? –galdetu zuen neskak .
She turned on her side and put her hand to his face. “kiss me,” she said. “let’s get up,” he said.	Neska bere aldera jiratu, eta eskua aurpegian jarri zion mutilari . –Eman musu–esan zion. –Altxa gaitezen–esan zuen mutilak .

She closed her eyes. She held him .	Neskak begiak itxi zituen. Mutila besarkatu zuen.
He said, "I'll see if anybody's home". But he just sat up, and stayed where he was, making believe he was watching the television.	–Etxean inor baden begiratzera noa– esan zuen mutilak . Baina eseri eta zegoen lekuan geratu zen, telebistari begira zegoelako itxurak eginez.
The boy laughed, but for no good reason. For no good reason, he switched the reading lamp on.	Mutilak barre egin zuen, hartarako arrazoirik gabe, ordea. Orobat arazorik gabe, gau mahaiko lanpara piztu zuen.
The girl brushed away a mosquito, whereupon the boy stood up and tucked in his shirt.	Neskak eltxo bat kendu zuen gainetik, eta mutilak zutitu eta alkandora galtzen barruan sartu zuen.
"Whatever they ask, offer ten dollars less. It's always a good idea" she said. "And besides they must be desperate or something"	–Eskatzen dutena eskatzen dutela, hamar dolar gutxiago eskaini zuk. Ideia ona izaten da hori beti– esan zion neskak –.Gainera, arrunt etsita egon behar dute.
The man came down the sidewalk with a sack from the market. He had sandwiches, beer whiskey. He saw the car in the driveway and the girl on the bed. He saw the television set going and the boy on the porch.	Gizona espaloian behera zetorren, eskuan supermerkatuko poltsa handi bat zekarrela. Ogitaratekoak, garagardoa, whiskia zekartzan. Sarbidean autoa ikusi zuen eta neska ohearen gainean. Telebista martxan ikusi zuen eta mutila atarian.
"Hello", the girl said, and got up. "I was just trying it out". She patted the bed. "It's a pretty good bed."	–Kaixo –erantzun zion neskak , eta altxatu egin zen–. Probatzen ari nintzen.– Kolpetxo batzuk jo zizkion oheari.– Primerako ohea da.
"I'll take forty," the man said. He took a glass out of the cartoon. He took the newspaper off the glass. He broke the seal on the whiskey.	–Berrogei konforme– esan zuen gizonak . Baso bat atera zuen kartoizko kaxatik. Egunkari papera kendu zion basoari. Whiskiaren zigilua hautsi zuen.
"That's enough," the girl said. "I think I want water in mine" She pulled out a chair and sat at the kitchen table.	–Nahikoa– esan zuen neskak –. Nirea, urarekin nahiago. Aulki bat ekarri eta sukaldeko mahaiaren aurrean eseri zen.
The boy came back with the watered whiskey. He cleared his throat and sat down at the kitchen table. He grinned. But he didn't drink anything from his glass.	Mutila whiskia urarekin zekarrela itzuli zen. Eztarria leundu eta sukaldeko mahaiaren eseri zen. Irribarre egin zuen. Baina ez zuen edan.
The man gazed at the television. He finished his drink and started another. He reached to turn on the floor lamp. It was then that his cigarette dropped from his fingers and fell between the cushions.	Gizona telebistari begira zegoen. Bere whiskia bukatu eta beste bat edaten hasi zen. Eskua luzatu eta lanpara piztu zuen. Une hartan zigarreta hatzen artetik irristatu eta kuxinen artean erori zitzaion.
The girl got up to help him find it.	Neska altxatu eta zigarreta bilatzen lagundu zion.

<p>The boy took out the checkbook and held it to his lips as if thinking.</p>	<p>Mutilak txeketegia atera eta</p>
<p>The man waved his hand at this preposterous question. “Name a figure,” he said.</p>	<p>Gizonak eskuari eragin zion, galdera xelegre hura entzunda. –Esan kopuru bat– proposatu zuen.</p>
<p>He looked at them as they sat at the table.</p>	<p>Gizonak begiratu egin zien, han mahaian eserita zeudela.</p>
<p>I’m going to turn off this TV and put on a record,” the man said. “This record-player is going, too. Cheap. Make an offer”.</p> <p>He poured more whiskey and opened a beer.</p> <p>“Everything gone,” said the man.</p>	<p>–Telebista itzali eta disko bat ipiniko dut– esan zuen gizonak–. Disko-jogailua ere salgai dago. Merke. Egin ezazue eskaintzaren bat.</p> <p>Whiski gehiago zerbitzatu eta garagardo bat ireki zuen.</p> <p>–Dena dago salgai –esan zuen.</p>
<p>The girl held out her glass and the man poured.</p> <p>“Thank you,” she said. “You’re very nice” she said.</p>	<p>Neskak basoa luzatu zuen eta gizonak whiskia zerbitzatu zion.</p> <p>–Eskerrik asko –esan zuen neskak–. Oso atsegina zara.</p>
<p>“It goes to your head,” the boy said. “I’m getting it in the head.” He held up his glass and jiggled it.</p>	<p>–Burura igoko zaizu –esan zuen mutilak–. Burura igotzen ari zait. –Basoa jaso eta eragin egin zion.</p>
<p>The man finished his drink and poured another, and then he found the box with the records.</p> <p>“Pick something,” the man said to the girl, and he held the records out to her.</p>	<p>Gizonak bere whiskia bukatu eta beste bat zerbitzatu zuen, eta gero diskoen kaxa aurkitu zuen.</p> <p>–Aukeratu zerbait – bultzatu zuen neska, eta diskoak luzatu zizkion.</p>
<p>“Here,” the girl said, picking something, picking anything, for she did not know the names on these labels. She got up from the table and sat down again. She did not want to sit still.</p>	<p>–Hara hemen– esan zuen neskak disko bat aukeratuz, edozein aukeratuz, ez baitzituen izenak ezagutzen. Mahaitik altxatu eta berriz eseri zen. Ez zuen denbora guztian eserita geldirik egon nahi.</p>
<p>They drank. They listened to the record. And then the man put on another.</p> <p>Why don’t you kids dance? He decided to say, and then he said it. “Why don’t you dance?”</p>	<p>Edan zuten. Diskoa entzun zuten. Eta orduan gizonak beste disko bat jarri zuen.</p> <p>Zergatik ez duzue dantza egiten? Esatea erabaki zuen, eta halaxe esan zuen: –Zergatik ez duzue dantza egiten?</p>
<p>“Dance with me,” the girl said to the boy and then to the man, and when the man stood up, she came to him with her arms wide open.</p>	<p>–Egin dantza nirekin– eskatu zion neskak mutilari eta gero gizonari, eta gizona altxatu zenean, besoak zabaldua hurbildu zitzaion.</p>

<p>“Those people over there, they’re watching,” she said.</p>	<p>–Horko horiek, begira daude –esan zuen neskak.</p>
<p>“It’s okay,” the man said. “It’s my place,” he said.</p>	<p>–Ez da ezer gertatzen –esan zuen gizonak–. Nire etxea da.</p>
<p>“That’s right,” the man said. “They thought they’d seen everything over here. But they haven’t seen this, have they?” he said. He felt her breath on his neck. “I hope you like your bed,” he said.</p>	<p>–Hori da– esan zuen gizonak–. Etxe honetan dena ikusia zutela uste zuten. Baina hau ikusi gabeak ziren, ezta? Neskaren arnasa sentitu zuen lepoan. –Ohea gustatzea espero dut– esan zuen.</p>
<p>The girl closed and then opened her eyes. She pushed her face into the man’s shoulder. She pulled the man closer. “You must be desperate or something” she said.</p>	<p>Neskak begiak itxi zituen, eta gero zabaldu egin zituen. Aurpegia gizonaren besagainaren kontra jarri zuen. Berarengana ekarri zuen. –Arront etsita egon behar duzu – esan zion.</p>
<p>Weeks later, she said: “The guy was about middle-aged. All his things right there in his yard. No lie. We got real pissed and danced. In the driveway. Oh my God. Don’t laugh. He played us these records. Look at this record-player. The old guy gave it to us. And all these crappy records. Will you look at this shit?”</p>	<p>Aste batzuk geroago, azaldu zuen neskak: –Tipoa ez zen ez zaharra ez gaztea. Hantxe zeuzkan bere gauza guztiak, lorategian. Ez dut gezurrik esaten. Sekulako katua harrapatu genuen eta dantzan hasi ginen. Autoen sarbidean. Ene. Ez barrerik egin. Disko horiek jarri zizkigun. Begira disko-jogailu honi. Agureak eman egin zigun. Eta disko kaka horiek guztiak. Zabor hau ikusi nahi?</p>
<p>She kept talking. She told everyone. There was more to it, and she was trying to get it talked out. After a time, she quit trying.</p>	<p>Hizketan jarraitu zuen. Denei kontatu zien. Gehiago ere bazen, eta hartaz hitz egiten ahalegintzen zen. Handik puska batera, ahaleginari utzi zion.</p>

- genero markadun izenordaina → Ø (75/130)
- genero markadun izenordaina → izenordain neutroa (3/130)
- genero markadun izenordaina → generodun izena (19/130)
- generodun izena → generodun izena (33/130)

7.2. Eranskina II : Etxekoandrearen neskamea (azterketa)

8. Ingelesa	Euskara
But I've just given my lady her tea, and there was such a nice cup over, I thought, perhaps...	Oraintxe eman diot tea etxekoandreari , eta katilukada eder bat gelditu denez, pentsatu dut agian...
She drinks in the bed after her prayers to warm her up.	Otoitz egin ondoren edaten du ohean, berogailu bezala.
I put the kettle on when she kneels down and say to it, (...)	Belaunikatzen denean, nik heltzea sutan jarri eta esaten diot: (...)
(...) 'keeping her out of her bed in all weathers.'	(...) «ohetik kanpo egonaraziko duena, edozein eguraldirekin».
And she won't have a cushion, you know, madam; she kneels on the hard carpet.	Eta, gainera, ez du kuxinik nahi izaten, madam; tapiz gorrian bealunikatzen da.
It fidgets me something dreadful to see her , knowing her as I do.	Hotzikara ematen dit horrela ikusteak, hainbeste ezagutzen ahal dut.
I've tried to cheat her ; I've spread out the eiderdown.	Saiatu naiz engainatzen ere; edredoia zabaldu nuen lurrean.
But the first time I did it –oh, she gave me such a look –holy it was, madam.	Baina hori egin nuen aurreneko aldiari –haren begiratua! – santu bat ematen zuen, madam.
'Did our Lord have an eiderdown, Ellen?' she said.	«Gure jainkoak ba ote zuen edredoirik, Ellen?», esan zuen.
'No, but our Lord wasn't your age, and he didn't know what it was to have your lumbago.'	«Ez, baina gure Jainkoak ez zuen zure adina, eta ez zekien zer zen zurea bezalako lumbagoa edukitzea».
Wicked –wasn't it? But she's <i>too</i> good, you know, madam.	Ni bai bihurria, ezta? Baina finegia da, madam.
When I tucked her up just now and seen – saw her lying back her hands outside and her head on the pillow –so pretty –I couldn't help thinking, 'Now you look like your mother when I laid her out'.	Oraintxe tapa-tapa egin eta ikusi dudanean etzanda, eskuak kanpoan eta burua burkoan –polit-polita–, neure artean pentsatu dut: «Oraintxe zeure ama zena ematen duzu, haren hilotza beztitu nuenean!».
Oh, she did look sweet.	O, zein eder zegoen.

I did her hair, soft-like, round her forehead, all in dainty curls, and just to one side of her neck I put a bunch of most beautiful purple pansies.	Haren ile leunarekin kopetan kizkur finak egin, eta lepoaren alde batean bioleta moreen sorta jarri nion.
Those pansies made a picture of her , madam!	Dotore asko zegoen bioleta haiekin, madam!
Only after she'd got a little —well—feeble as you might say.	Apur bat... zera...ondozik edo egon ondoren.
Of course, she was never dangerous; she was the sweetest old lady .	Ez zuen noski sekula arriskutsu jokatu; etxeakoandrerik goxoena izan zen beti.
But how it took her was — she thought she'd lost something.	Baina nola jarri zen! Zerbait galdu zuela uste zuen.
She couldn't keep still, she couldn't settle.	Ezin geldirik egon, ezin lasaitu.
All day long she'd be up and down, up and down; you'd meet her everywhere (...)	Egun osoa eskaileretan gora eta behera, gora eta behera; leku guztietan topatzen zenuen: (...)
And she'd look up at you, and she'd say—(...)	Eta gora begiratu eta esaten zizun, (...)
But she'd catch me by the hand—I was favorite of hers —and whisper, 'find it for me, Ellen. Find it for me.'	Baina heltzen zidan eskutik —neu nintzen haren kuttuna—eta xuxurlatzen zidan, «Aurkitu, Ellen. Aurkitu».
...No, she never recovers, madam.	...Ez, ez zen bere onera etorri, madam.
She had a stroke at the end.	Atake bat izan zuen bukaeran.
Last word she ever said was —very slow, 'look in —the—Look—in —'.	Esan zituen azken hitzak, oso mantso, «Begira...horko...begira».
And then she was gone.	Eta joan zen.
Grandfather was furious! He caught hold of the tongs—I shall never forget it—grabbed me by the hand and shut my fingers in them.	Aitonaren haserrea! Hartu zituen aliketak —ez dut sekula ahaztuko—, heldu zidan eskutik eta hatzak harrapatu zizkidan.
'That'll teach you! ' he said.	«Horrela ikasiko dun », esan zuen.
... Well, you see, madam, he'd taken such pride in my hair.	... Izan ere, madam, zeharo harro zegoen nire ilearekin.
He used to sit me up on the counter, before the customers came, and do it something	Mahai gainean esertzen ninduen bezeroak etorri aurretik, eta zerbait apaina egiten zidan: kizkur handi, leunak eta goialdea izurra.

beautiful –big, soft curls and waved over the top.	
I remember the assistants standing round, and me ever so solemn with the penny grandfather gave me to hold while it was being done...	Gogoratzen naiz langileak nire inguruan, eta ni serio asko aitonak emandako penikearekin, ilea egin bitartean aitonak emana geldirik egotearren...
But he always took the penny back afterwards, Poor grandfather!	Baina ondoren, beti hartzen zidan penikea. Aitona gizagaixoa.
Wild, he was, at the fright I'd made myself.	Sutan jarri zen nik egindako txikizioa ikusita.
But he frightened me that time.	Baina orduan ederki beldurtu ninduen.
... No, madam, grandfather never got over it.	Ez, madam, aitonak ez zuen inoiz gainditu.
He couldn't bear the sight of me after.	Ezin ninduen aurrean ikusi.
Couldn't eat his dinner, even, if I was there.	Ezin zuen otordurik ere hartu, ni han banengoen.
So my aunt took me.	Hala, izebak hartu ninduen.
She was a cripple, an upholster.	Elbarria zen, tapizatzailea.
Tiny! She had to stand on the sofas when she wanted to cut out the backs.	Ipotxa! Sofaren atzeak mozteko, gainean zutik jarri behar zuen.
And it was helping her I met my lady ...	Eta hari laguntzen nengoela ezagutu nuen nire etxeakoandrea ...
My lady had her two little nieces with her (...)	Etxekoandrari bi iloba txiki etorri zitzaizkion bisitan (...)
'Now, Ellen,' she said, 'I want you to take the two young ladies for a ride on the donkeys.'	«Aizan, Ellen», esan zidan, «Eraman itzan bi andereño txiki hauek astoan ibiltzera».
Off we went; solemn little loves they were; each had a hand.	Hara joan ginen; poxpolin hutsak ziren; bakoitza esku batetik helduta.
I had my young ladies .	Andereñoekin nengoen.
I was sleeping in Mrs Jame's bedroom, our cook that was, at the time	James andreamen logelan egiten nuen lo, garai hartako gure sukaldaria

He had a little flower-shop just down the road across from where we was living.	Mutilak loradenda txiki bat zuen, kalean behera joanda, gu bizi ginenetik beste aldean.
Flowers! You wouldn't believe it, madam, the flowers he used to bring me.	Loreak! Ez zenuke sinetsiko, madam, nolako loreak ekartzen zizkidan.
He'd stop at nothing.	Haren ahaleginak!
The day came he was to call for me to choose th furniture.	Iritsi zen eguna nire bila etortzekoa zena, altzariak aukeratzera joateko.
My lady wasn't quite herself that afternoon.	Etxekoandrea ez zegoen oso ongi arratsalde hartan.
Not that she'd say anything, of course; she never does or will.	Ez zuen ezer esan, noski; ez du ezer esaten, eta ez du behin ere esango.
But I knew by the way that she kept wrapping herself up and asking me if it was cold –and her little nose looked... pinched.	Baina ongi antzeman nion, arropetan nola estaltzen zen ikusita, eta niri galdezka ea hotz egiten zuen, eta haren sudurtxoak ematen zuen... ihartuta.
I didn't like leaving her ; I knew I'd be worry-ing all the time.	Ez nuen bakarrik utzi nahi; banekien kezka horrekin egongo nintzela denbora guztian.
At last I asked her if she'd rather I put it off.	Azkenean galdetu nion ea nahiago zuen nik dena atzeratzea.
'Oh no, Ellen,' she said, 'you mustn't mind bout me. You mustn't disappoint your young man .'	«O, ez, Ellen», esan zidan, «ez larritu nigitik. Ez desilusio hori eman zure mutil gazte horri».
And so cheerful, you know, madam, never thinking about herself .	Eta, gainera, hain alai, madam, bere buruaz axolarik gabe.
I began to wonder... then she dropped her hadkerchief and began to stoop down to pick it up herself –a thing she never did.	Zalantza piztu zitzaidan... orduan eskuzapia erori zitzaion eta makurtzen hasi zen, hura jasotzeko; sekula ez zuen egiten.
I cried, running to stop her .	(...) egin nuen oihu, hura geldiarazteko lasterka.
'Well,' she said, smiling, you know, madam 'I shall have to begin to practise'	«Tira», esan zuen, irribarrez, aizu, madam, «hasi beharko ohitzen».
I went over to the dressing-table and made believe to rub up the silver, and I couldn't keep myself in, and I asked her if she'd rather I... didn't get married.	Apain-mahai aldera joan, eta zilarra garbitzen ari banintz bezala egin nuen, baina eutsi ezin eta galdetu nion ea nahiago zuen ni... ez ezkontzea.
'No, Ellen,' she said –that was her voice, madam, like I'm giving you –'No, Ellen, not for the wide world!'	«Ez, Ellen», esan zidan –ahots honekintze, madam, orain ni zurekin bezala—: «Ez, Ellen, ezta ezerengatik ere!».

But while she said it, madam, —I was looking in her glass; of course, she didn't know I could see her — she put her little and on her heart just like her dead mother used to, and lifted her eyes...	Baina hori esaterakoan, madam —ni ispiluari begira nengoen; berak ez zekien noski ikusten nuela —, bihotzera eraman zuen bere esku txikia, bere ama zenak egiten zuen bezala, eta begiak goratu zituen...
When Harry came I had his letters all rady, and the ring and a ducky little brooch he'd given me (...)	Harry etorri zenerako prest nituen haren gutun guztiak, eta eraztuna eta opari emandako brotze txiki pottoko bat (...)
I opened the door to him .	Hala, atea zabaldu nion.
I never gave him the time for a word.	Ez nion tutik esateko betarik eman.
White! He turned as white as a woman.	Zuri-zuri! Emakume bat bezain zuri jarri zen.
I had to slam the door, and there I stood, all of a tremble, till I knew he had gone.	Danbateko batez itxi behar izan nuen atea, eta hantxe egon nintzen, dardara batean, joana zela jakin arte.
When I opened the door —believe me or not, madam —that man was gone!	Atea zabaldu nuenean —ez dakit sinetsiko duzun, madam—, joana zen!
And she says, 'Good night, Ellen. Sleep sound and wake early!' I don't know what I should do if she didn't say that, now.	Eta esan dit, «Gabon, Ellen. Ondo lo egin eta garaiz esnatu!». Ez dakit zer egingo nukeen hori ez balit esango.

- genero markadun izenordaina → Ø (94/118)
- genero markadun izenordaina → izenordain neutroa (8/118)
- genero markadun izenordaina → generodun izena (1/118)
- generodun izena → generodun izena (14/118)
- genero markarik gabeko esaldia → generodun izena (1/118)

7.3. Eranskina III: Telefono-dei bat (azterketa)

7. Ingelesa	Euskara
Please, God, let him telephone me now.	Arren, Jauna, dei diezadala telefonoz orain.
Dear God, let him call me now.	Jainko maitea, dei diezadala orain.
Only let him telephone now.	Hauxe baino ez, dei diezadala telefonoz orain.
He said he would telephone at five o'clock.	Berak esan zidan telefonoz deituko zidala bostetan.
I think that's where he said "darling."	Uste dut egokiera horretan esan zidala "laztana".
I'm almost sure that he said it there.	Ia ziur nago orduan esan zidala.
I know he called me "darling" twice, and the other time was when he said good-by.	Nik dakidala, bi alditan deitu dit "laztana", eta hurrengo, agur esaterakoan izan zen.
He was busy, and he can't say much in the office, but he called me "darling" twice.	Lanpetuta zebilen, eta ezin zidan askorik ere hitz egin bulegotik, baina "laztana" deitu zidan bi alditan.
He couldn't have minded my calling him up. I know you shouldn't keep telephoning them – I know they don't like that	Ez ziokeen axola beharko nik berari telefonoz deituko banio; badakit emakumeok ez dugula gizonezkoei deika eta deika aritu behar...Badakit ez zaiela gustatzen.
But I hadn't talked to him in three days – not in three days.	Baina ez nuen berakin hitz egin orain dela hiru egun... txintik ere ez, hiru egunotan.
And all I did was ask him how he was; it was just the way anybody might have called him up.	Eta, zera baino ez nuen egin, zer moduz zegoen galdegin.
He couldn't have minded that.	Ez ziokeen axola beharko.
He couldn't have thought I was bothering him .	Ez zukeen pentsatu beharko gogait egiten ari nintzaionik.
"No, of course you're not," he said.	"Ez, horixe ezetz", esan zidan.
And he said he'd telephone me.	Eta, esan zidan, berak deituko zidala telefonoz.

He didn't have to say that.	Ez zidan zertan hori esan.
I didn't ask him to, truly I didn't.	Ez nion halakorik eskatu, benetan dinotsut.
I don't think he would say he'd telephone me, and then just never do it.	Ez dut uste telefonoz deituko zidala esango zidakeenik, gero sekula ez deitzekotan.
Please don't let him do that.	Arren, ez dezala horrelakorik egin, Jauna.
He was busy, and he was in a hurry, and there were people around him , but he called me "darling" twice.	Lanpetuta zebilen, eta korrika eta presaka, eta jendea zuen inguruan, baina "laztana" deitu zidan bi alditan.
I have that, even if I never see him again.	Horixe nire alde, sekula berriro ikusten ez badut ere.
Nothing's enough, if I never see him again.	Ezer ez da nahikoa, sekula berriro ikusten ez badut.
Please let me see him again, God.	Arren, ikus dezadala berriro, Jauna.
Please, I want him so much.	Arren, hain dut maitea.
I want him so much.	Hain dut maitea.
I will try to be better, I will, if you let me see him again.	Ahaleginduko naiz hobea izaten, ahaleginduko naizenez, baldin eta Zuk berriro ikustarazten badidazu.
If you let him telephone me.	Baldin eta Zuk niri telefonoz deiarazten badi-ozu.
Oh, let him telephone me now.	Dei diezadala telefonoz orain.
You said You would do whatever asked of You in His name.	Zuk esana da edozer egiteko eska dakizukeela, Zuri, Haren izenean.
Oh, God, in the name of Thine only beloved Son, Jesus Christ, our Lord, let him telephone me now.	Oi, Jauna, Zerorren Seme kutun bakarraren, eta Jesukristo gure Jainkoaren izenean, dei diezadala telefonoz orain.
Suppose a young man says he'll call a girl up, and then something happens, and he doesn't.	Demagun mutil batek esan diola neska bati telefonoz deituko diola, eta gero zerbait gertatzen da, eta ez dio deitzen.
Maybe before I look at it again, he will call me.	Agian, nik berriro erlojuari begiratzerako, deitu egingo dit.

I'll be so sweet to him , if he calls me.	Gozo-gozo arituko natzaio, baldin eta deitzen badit.
If he says he can't see me tonight, I'll say, "why, that's all right, dear. (...)"	Eta esaten badit, gaur gauean ezin nauela ikusi, zera esango diot: (...)
I'll be the way I was when I first met him .	Estreinakoz ezagutu nuenean bezalaxe jokatuko dut.
Then maybe he'll like me again.	Hartara, agian, gogoko izango nau berriro.
I think he must still like me a little.	Uste dut oraindik ere gogoko nauela, apur bat
He couldn't have called me "darling" twice today, if he didn't still like me a little.	Gaur ez zidan deituko "laztana", bi alditan, apur bat gogoko ez banindu.
It isn't all gone, if he still likes me a little; even if it's only a little, little bit.	Gureak ez du egin, beraz, oraindik apur bat gogoko banau; apur bat baino ez bada ere, apurtxo bat besterik.
You see, God, if You would just let him telephone me.	Hara, Jauna, baldin eta Zuk niri telefonoz deiarazten badiozu, aurrerantzean ez nizuke ezer gehiago eskatuko.
I would be so sweet to him , I would be gay, I would be just the way I used to be, and then he would love me again.	Gozoa izango nintzateke berarekin , alai izango nintzateke, behinola ohi bezalaxe jokatuko nuke, eta orduan maitatu egingo ninduke berriro.
So won't You please let him telephone me?	Hortaz, arren niri telefonoz deiaraziko al diozu, Zuk?
So won't You please let him telephone me now?	Hortaz, Zuk, niri telefonoz deiaraziko al diozu orain?
If he doesn't telephone me, I'll know God is angry with me.	Baldin eta telefonoz deitzen ez badit, jakingo dut Jauna haserre daukadala.
I'll count five hundred by fives, and if he hasn't called me the, I will know God isn't going to help me, ever again.	Bostehun arte kontaktuko dut, bosnaka, eta deitzen ez badit, orduan jakingo dut Jaunak ez didala gehiago lagunduko aurrerantzean.
Suppose he's a little late calling me up –that's nothing to get hysterical about.	Demagun apur bat berandutu egin duela nire deia...Hori ez da kirioak airean ibiltzeko modukoa ere, histeriak jota.
Maybe he isn't going to call –maybe he's coming straight up here without telephoning.	Agian, ez dit deitu ere egingo...agian, honantz dator zuzenean, telefono-deirik egin gabe.
He'll be cross if he sees I have been crying.	Sutan jarriko da, ikusten badu, negarrez aritu naizela.

They don't like you to cry.	Gizonezkoei ez zaie gustatzen emakumezkoak negarrez aritzea.
He doesn't cry.	Berak ere ez du negar egiten.
I wish to God I could make him cry.	Nahiago nuke, Jauna, ahal baniezaio negar eginarazi.
I wish I could make him cry and tread the floor and feek his heart heavy and big and festering in him.	Nahiago nuke, ahal baniezaio negar eginarazi, ahal baneza lurrean zanpatu, eta ahal baniezaio bihotza sentiarazi astun, itzel, eta zornez gaiztotua.
I wish I could hurt him like hell.	Nahiago nuke, ahal baniezaio kalte egin, infernuak bezainbatean.
He doesn't wish that about me.	Berak ez du halakorik nahi nigandik.
I don't think he ever knows how he makes me feel.	Ez dut uste dakienik ere nola sentiarazten nauen.
I wish he could know, without me telling him.	Nahiago nuke, ahal baleza jakin, nik ezer kontatu beharrik izan gabe.
They don't like you to tell them they've made you cry.	Gizasemei ez zaie gustatzen, emakumeok kontatzea, negar eginarazi digutela.
They don't like you to tell them you're unhappy because of them.	Gizonezkoei ez zaie gustatzen, emakumeok kontatzea, zorigaiztokoak garella euren erruz.
They hate you whenever you say anything you really think.	Gizonezkoek gorroto dituzte pertsona atsekabetuak.
I would be so sweet and so gay, he wouldn't help but like me.	Gozo-gozo eta alai-alai arituko nintzaioke; etsi-etsian, hark ni gogoko izateraino.
If he would only telephone.	Baldin eta telefonoz deituko balit orain.
Maybe that's what he is doing.	Agian horrentantxe arituko da.
Maybe he is coming on here without calling me up.	Agian honantz dator zuzenean, telefono-deirik egin gabe.
Maybe he's on his way now.	Agian, honako bidean da orain.
Something might have happened to him.	Zerbait ere gerta zekioken.

I never picture him run over.	Ezin irudika dezaket ezer gerta dakiokenik.
I never see him lying still and long and dead.	Ezin ikus dezaket sekula lurrean zerraldo etzanda eta hilda.
If he were dead, he would be mine.	Baldin eta hilda balego, nirea izango zatekeen.
If he were dead, I would never think of now and the last few weeks.	Baldin eta hilda balego, sekula ez nukeen pentsatu beharko orainaz, ez eta orain aurreneko astez.
I wish he were dead.	Nahiago nuke hilda balego.
I wish he were dead, dead, dead.	Nahiago nuke hilda balego, hilda, hilda.
Maybe he is hardly late at all.	Agian ez da hainbeste ere berandutu.
Anything could have made him a little late.	Edozerk berantets zezakeen apur bat.
Maybe he had to satay at his office.	Agian bulegoan geratu behar izan du.
Maybe he went home, to call me up from there, and somebody came in.	Agian etxera joan da, handik niri telefonoz deitzeko asmoz, eta ustekabean norbait agertu zaio.
He doesn't like to telephone me in front of people.	Ez zaio gustatzen niri telefonoz deitzea, jendea aurrez aurre duelarik.
Maybe he is worried, just a little, little bit, about keeping me waiting.	Agian kezkatuta dago, apur bat, apurtxo bat, ni zain edukiarazteagatik.
He might even hope that I would call him up.	Are, nik deituko diodalakoan egon daiteke.
I could telephone him .	Nik dei diezaioket telefonoz.
Oh, God, please, don't let me telephone him	Oi, jauna, arren, ez iezadazu utz deitzen.
I know, God, just as well as You do, that if he were worried about me, he'd telephone no matter where he was or how many people the were around him .	Badakit, Jauna, Zuk ere ondotoxo dakizunez, nitaz kezkatuta egongo balitz, telefonoz deituko lidake, edonon legokeelarik edo eta zenbat-nahi jende leukaleelarik ere inguruan.
I won't telephone him .	Ez diot nik telefonoz deituko.

I'll never telephone him again as long as I live.	Sekula ez diot telefonoz deituko berriro, bizi naizen bitartean.
He'll rot in hell, before I call him up.	Ustelduko ahal da infernuko zuloan, nik berriro deitzerako.
If he wanted me, he could get me.	Baldin eta nire atzetik balebil, beregana nintzake.
He knows where I am.	Badaki non nagoen.
He knows I'm waiting here.	Badaki zain-zain naukala hemen.
He's so sure of me, so sure.	Hain dago ziur nitaz, hain ziur egon ere.
It would be so easy to telephone him .	Aise askorik deituko nioke telefonoz.
Maybe he wouldn't mind.	Agian, ez litzaioke axolako.
Maybe he'd like it.	Agian, gustatu egingo litzaioke.
Maybe he has been trying to get me.	Agian, nirekin harremanetan jartzen ahalegintzen ari da.
Oh, what does pray matter, when I can't stand it if I don't talk to him ?	Baina zer axola dio harrotasunak, jasangaitza bazait harekin hitz egin ezina?
I'm not saying that because I want to call him .	Ez diot, hori, deitu nahi diodalako soilik.
Please, God, keep me from telephoning him .	Arren, jauna, libra nazazu telefonoz deitzetik.
I may have misunderstood him .	Gaizki ere uler niezaiokeen.
Maybe he said for me to call him up, at five.	Agian, esan zidan nik dei niezaiola telefonoz bostetan.
He could have said that, perfectly well.	Horixe esan ziezadakeen, lasai askorik.
Its's so possible that I did't hear him right.	Litekeena da, oso, nik gaizki aditu izatea esandakoa.
I'm almost sure that's what he said.	Ia ziur nago horixe esan zidala.

Suppose he were someone I didn't know very well.	Demagun beste norbait dela, oso ondo ezagutzen ez dudan norbait.
Suppose he were another girl .	Demagun beste neska bat dela.
Why can't I be casual and natural, just because I love him ?	Zergatik ezin dut axolagabea eta naturala izan, maite dudalako soil-soilik?
I'll call him up, and be so easy and pleasant.	Deitu egingo diot, eta abegitsu eta atsegina izango naiz berarekin.
Oh, don't let me call him .	Ez iezadazu utz deitzen.
God, aren't You really going to let him call me?	Jauna, Zuk ez al diozu, benetan niri deiaraziko?
I don't even ask You to let him telephone me this minute.	Ez dizut eskatzen ere niri une honetantxe deitzea, Jauna: gutxi barru dei dezala baino ez.
God: only let him do it in a little while.	
If he hasn't telephoned then, I'll call him .	Baldin eta bostehunera iristerako deitu ez badit, orduan nik deituko diot.
Oh, please, dear God, dear kind God, my blessed Father in Heaven, let him call before then.	Oi, arren, Jainko maitea, Jainko Jaun erruki-orra, zeru goietako Aita Bedeinkatu nirea, dei diezadala bostehunera baino lehen.

- genero markadun izenordaina → Ø (134/154) (%87,01)
- genero markadun izenordaina → izenordain neutroa (6/154) (%3,90)
- generodun izena → generodun izena (3/154) (%1,95)
- genero markarik gabeko izenordaina → generodun izena (11/154) (%7,14)

7.4. Eranskina IV: Egurra (azterketa)

8. Ingelesa	Euskara
He will also take on the job of rebuilding chairs and tables that have lost some rungs or a leg or are otherwise in a dilapidated condition.	Zeharreko egurren bat edo hankaren bat galdu duten edo, gainerakoan, erabat korrokoilduta dauden aulki eta mahaiak konpontzeaz ere arduratzen da.
There aren't many people doing that kind of work anymore, and he gets more business than he can handle.	Dagoeneko ez dago lan mota hori egiten duen jende askorik, eta goberna ditzakeenak baino enkargu gehiago hartzen ditu.
He doesn't know what to do about it.	Hori dela eta, Royk ez daki zer egin.
His excuse for not hiring somebody to help him is that government will make him go through a lot of red tape, but the reason may be that he's used to working alone – he's been doing this ever since he got out of the army– and it's hard for him to imagine having somebody else around all the time.	Inor ez kontratatzeko aitzakia gisa jartzen du gobernuak paper asko eginaraziko dizkiola, baina baliteke benetako arrazoa zera izatea, ohituta dagoela bakarrik lan egiten –lan horretan aritu da armadatik atera zenetik– eta zail egiten zaiola uneoro inguruan norbait izango duela irudikatzea.
If he and his wife , Lea, has had a boy , the boy might have grown up with an interest in the work and joined him in the shop when he was old enough.	Royk eta Lea emazteak semerik izan balute, mutikoari lanarekiko interesa piztuko litzai-oke, eta, Roy zahartutakoan, semeak dendan lagunduko zuen.
Once he'd thought of training his wife's niece Diane.	Garai batean, emaztearen lolarari , Dianeri, lanbidea irakatsiko ziola pentsatu zuen.
When she was a child, she had hung around watching him and after she got married –suddenly, at the age of seventeen – she helped him with some jobs because she and her husband needed the money.	Izan ere, haurra zelarrik, Diane inguruan izaten zuen, begira, eta, ezkondu ostean –bat-batean, hamazazpi urte zituela– lan batzuetan lagundu zion, senarra eta biek dirua behar zutelako.
But she was pregnant, and wood smoke made her sick.	Diane , ordea, haurdun zegoen, eta desugertzailearen usainak, egurtinduek, linazi-olioak, bernizak eta egur errearen keak ondoeza eragiten zioten.
Or that was what she told Roy.	Edo horixe esan zion Royri.
She told his wife the real reason – that her husband didn't think it was the right kind of work for a woman .	Royren emazteari kontatu zion benetako arrazoa: senarrak ez zuen uste hura emakume batentzako lan egokia zenik.
So now she has four children and works in the kitchen of an old people's home.	Dianek , orain, lau ume dauzka, eta zahar-etxe bateko sukaldean egiten du lan.
Apparently, her husband thinks that is all right.	Hori, dirudienez, egoki ikusten du senarrak .

It is heated by a woodstove and getting the fuel for the stove has led him to another interest, which is private but not secret.	Egur-berogailu batek berotzen lantokia, eta berogailuarentzako erregaia lortu beharrak bestelako zaletasun bat ekarri dio Royri .
That is, everybody knows about it but nobody knows how much he thinks about it or how much it means to him .	Horrek esan nahi du guztiek daukatela horren berri, baina inork ez dakiela zenbat pentsatzen duen Royk horretan eta zenbateraino garrantzitsua den berarentzat.
He has a four-wheel-drive truck and a chain saw and an eight-pound splitting ax.	Badauzka lau gurpleko trakziodun kamion-eta, motozerra eta zortzi libra pisatzen duen aizkora.
He spends more and more time in the bush, cutting firewood.	Geroz eta denbora gehiago ematen du zuhaitzetan, su-egurra mozten.
More than he needs for himself, as it turns out –so he has taken to selling it.	Behar duena baino gehiago mozten du, alajaina: horregatik saldu egiten du.
When he first started going to the bush Lea used to worry about him .	Zuhaitzetara joaten hasi zenean, Lea kezkatu egiten zitzaion.
She worried about whether he would have an accident out there by himself, but also about whether he was letting the business go slack.	Hor nonbait ez ote zuen istripurik izango, baina baita ere, ez ari ote zen negozioa arduragabe uzten.
She didn't mean that his workmanship might suffer but his timetable.	Ez zuen esan nahi lan-kalitatea jaitsiko zenik; epe kontua zen.
“You don't want to let people down,” she said. “	«Ez diozu jendeari hutsik egin nahiko», esaten zion.
She had the idea of his business being an obligation –something he did to help people out.	Leak betebeharrak moduak ikusten zuen senar-raren negozioa, jendea laguntzeko egiten zuen zerbaiten modura.
She was embarrassed when he raised his prices –so in fact was he – and went out of her way to tell people what the materials were costing him nowadays.	Royk prezioak igo zituenean, Leak lotsa sentitu zuen– baita Royk ere, egia esan– eta ahal zuen guztietan kontatu zion jendeari zenbat ordaindu behar zuen senarrak materialen truke.
While she had her job, it was not difficult for him to make off for the bush after she had gone to work and try to be back before she got home.	Leak lan egiten zuen bitartean, Royri ez zitzaion zaila gertatu emaztea lanera joandakoan zuhaitzetara alde egitea eta, hura itzuli aurretik, etxean bueltan izaten saiatzea.
She worked as a receptionist and book-keeper for one of the dentists in town.	Leak herriko dentistetako baten kontsultan egiten zuen lan: harrera-lanak egin eta kontuak eramaten zituen.
It was a good job for her , because she enjoyed talking to people, and good for the dentist because she came from a large and loyal family who would never think of having their teeth tended to by anybody but the man who was her boss.	Lan ona zen emaztearentzat , atsegin baitzuen jendearekin hitz egitea, eta dentista-arentzat ere ona zen, Lea familia handi eta leialekoa baitzen, beren hortzak ikusteko Learen nagusia ez zen beste inongo dentistarik sekula hartuko ez zuen familia.

